

Aikor!

txorierritiko alátzkarta



*Suak ílusíóak
bíz deíguzan*



Derio



Lezama



Larrabetzu



Loiu



Sondika



Zamudio

Txorierriko Mankomunitateak eta Udalek
zorionak eta urte barri on opa deutsueez



Alkarregaz egiten
dogu bidea



Argitaratzailea: TOTOAN, Txorierriko Euskara Elkarteen Federazioa
(Lagatzu, Zorritzeta, Arrekikili, Tximintx)
Tf.: 94 452 34 47
e-posta: aikortxori@yahoo.es

Zuzendaria: Xabier Goienetxe

Erredakzio burua: Itxaso Marina

Erredakzio taldea: Fernando Larrondo, Jose Angel Mentxaka, Maite Lekerika, Gaizka Eguskiza, Amagoia Guezuraga, Belen Gana, Pospolin; Bestorrene eta Aritz ta Nagel

Kolaboratzaileak: Iñaki Bilbao, Lurdes Lasuen, Asier Oruetxebarria, Juan Luis Goikoetxea, Imanol Alvarez, Juantxu Bilbao, Maite Aranburu eta Ines Serrano

Zuzentzaileak: Alberto Mtz. de la Cuadra, Iñaki Astorkiza eta Jagoba Zallo

Publizitatea: Arantza Abxutegi

Banaketa: Arantza Abxutegi, Gaizka Eguskiza

Maketatzailea: Gaizka Eguskiza

Inprimategia: Gertu

Ale kopurua: 5.000

Lege gordailua: BI 137-02 ISSN 1578-9322

AIKOR! aldizkariak ez dau bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanien edota eritxien erantzukizunik.



KULTURA SAILA

Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Bizkaiko Foru Aldundia
Diputación Foral de Bizkaia



diruz lagundutako aldizkaria



10 Ane Albisu



28 Jone Etxebarria



12 Txernobil



14 Aikor!lagun kanpaina

AURKIBIDEA

4Eritxia 5Gutunak 6Laburrak eta albisteak
10Gurean izan da... Ane Albisu 12Txernobil 14Gabon
sua 15Gabonetako egitarauak 22Pobreziari ez!
24Aikor!lagun kanpaina 34Jone Etxebarria
36Euskara Eguna, Larrabetzun 39Pintxotan, Esther
Olabarrietarekin 40Osasuna 41Teknologia
42Musika 43Txorierri ezagutu
44Sukaldaritza 45Denborapasa

CLINICA DENTAL ZAINDUZ
BIZKAITIA

- Odontologia orokorra
- Ortodontia (jumeak eta haidiak)
- Periodontia
- Karga. Hartz-hazimatzaren planak berria
- Hartz orotako (zurraketa, piercing...)
- Hartz-jarriak eta hartzak

Jesus Enrique Lopez Hidalgo
Odontologo

15.000.000 7.000.000 (Bilbao)
Tf: 94 454 01 01 - e-mail: clainduz@clainduz.net - 48100 DERIO (Bizkaia)

MODA INFANTIL

Tximeleta

Carrilola Arbelu, 8
Telefonoa: 94 454 14 35
Faxa: 94 454 38 26

48100 BILBUO
Bizkaia

Bar TRIPPY

ZURE GIRORIK ONENA

Gura baduzu ondo pasatu, musika ona entzun
eta futbollean jokatu, etorri zaitz Trippya, Derioa

Beteko Kalea Bejo
DERIO

Itxuren munduan



IMANOL ALVAREZ
(Filosofian lizentziatua)

A skok ahaztuta izango dituzue gertakari batzuk, hurrengo lerrootan kontatu nahi dudana idaztera bultzatu nautenak. Kontua da gertakari bik nire arreta berenganatu zutela; gertakariotan politika eta sexua nahastu ziren. Alde batetik, Espainiako presidente ohiak kazetari bati titi artean sartu zion boligrafoa, liburu bat sinatzeko eskatu zionean; bestetik, Iniciativa per Catalunya (IPC) gazte mugimenduak kondoiak banatu zituen Kataluniako hauteskunde kanpainan, “Fóllate a la derecha” lelopean.

Nire ustez, gertakari bi horiek kritikagarriak dira: lehenengoa, matxista delako erabat, eta bigarrena, gaur egungo politikaren isla delako (argudioen orde, eraso zuzenak egitea). IPCko gazteek kondoien lema aldatu eta barkamena eskatu zuten (egindako akatsa ulertu zutela pentsatu nahi dut); Aznarren hanka sartzea, berriz, denboraren orratzetan galdu da. Ziur nago egindakoa naturaltasun osoz egin zuela; hala ere, bere jokaera alde batera utzita, tipo higuigarri bezain argia da, eta soberan daki hori bezalako keinuek ez diotela mesederik egiten bere partiduaren itxura publikoari. Tamaiz, gaur egungo zirku politikoan are kaltegarriagoa den beste zerbait badago: akatsak onartzea.

Politikaren gaixotasunik larriena dogmatismoa da; talde edo agintari politikoei itsu-itsuan jarraitzea, esaten dutenari aditu gabe. Zerbait esan edo egin ondoren, nola egingo du atzera politikari batek? Zer esango die jarraitzaileei? Dogmatismoak partiduen alde egiten du. Partiduok, salbuespen

txalogarri banaka batzuk alde batera utzita, ondotoxo dakite hori, eta etengabe indartzen dute zirrikiturik gabeko diskurtso homogeneoekin. Zoritzarrez, itxurari mezuari baino garrantzi handiagoa eman ohi zaion gizarte honetan, politikak gorengo postua bereganatu duela deritzot.

Alderdi politikoek ezin dute “gurekin edo gure kontra” argudioa erabili, inork ez baitu inoiz arrazoi osoa. Dogmatismoak baztertzen ditu ikuspegi politiko konplexuak eta aberatsak. Uler dezagun behingoz, gizakia animalia soziala den aldetik, ulermen arrazoituaren menpe bizi behar dela, eta ez erakunde politikoaren menpe. Ez dezagun erosi, beraz, saldu nahi diguten giza-kiaeren itxura faltsua. Politikak herriaren

etorkizunaz diharduen erabaki-gunea beharko luke, eta horrek berekin dakar guk erabakirik objektiboenak eta justuenak hartu beharra, zeinahi direla ere. Utz dezagun subjektibotasuna geuri baino ez dagozkigun gauzetarako!

“Itxurari mezuari baino garrantzi handiagoa eman ohi zaion gizarte honetan, politikoak gorengo postua bereganatu duela deritzot”

Oi Pello Pello!

Lehengo egunean kotxean aspaldiko kanta hau entzun neban eta... *Oi Pello Pello!* *Logale nauk eta jinen niza oherat?* Lehengo kanta, gaurko kontua. Hogeita batgarren mendean oraindino be aldatzen ez dan ohitura. Teknologia barrien garaian sasibardintasuna da nagusi. Nork esango leuke sexu desbardinaren arteko bardintasuna dagoanik? Agian lanbide batzuetan bai, edo egoera jakin batzuetan, baina bizitzako arlo guztietan ez. Desbarditasunen aldekoa naz, arrazak, ohiturak edo kultura bada berbagaia. Baina gizakia gizon-nezkoa edo emakumezkoa izateagatik daukazan abantailak edo desabantailak ez dira bidezkoak.

Ez dot aztertu nahi estatistika erraldoiak edo enpresa handietako goi-karguak noren esku dagozan, etxeko lanen eta seme-alaben ardura noren gainean dagoan baino. Lagundu hitza erabilienean da, baina beharbada konpartitu, erdibanatu,



ASIER ORUETXEBARRIA
(Irakaslea)

egin, neure kargu hartu, edo... horreen moduko adierazpenak izango litzakez justuagoak behararren banaketarako. Gehienetan laguntzaileak gizonok izaten gara, beti edozein aitzakia tartean dala, ez daukat denborarik, ez dakit hori egiten, txarto egiteko zuk egiten badozu hobeto... Urte barrian hartzen doguzan asmo onenen artean lankidetasuna be hartu daikegu helburu.

ZAMUDIOKO ESTANKOA
Tabakoak, tinbrea eta opariak

Talleri kafes. 5 ZAMUDIO
Tfnak: 94 452 12 73

BAR TXIKI
ESPEZIALITATEA,
TORTILLAK

Lehenbizikoak: Mende Plena, 1
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
Telefonoa: 94 452 04 58

BAR RAFI
ESPEZIALITATEA: PINTXOAK

Rafael García Tejero

C/ de Kales, 5
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

Tfn: 94 452 08 08
Móvil: 607 408 813

Zeure eritxia agertu gura badozu, gutunen atal hau zabalik daukazu. Ahalik eta eritzi gehienek lekua euki dagien, ez da komeni makinazko 15 lerro baino luzeago idazterik gutunotan. Izena, telefonoa, helbidea eta nortasun agiriaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu behar izan ezkerro, Aikori!-ek bere esku dauka horretarako eskubidea. Zure eritxia aginduteko helbidea: Totoan, Aresti kalea 2, 48170, Zamudio edo aikortxori@yahoo.es

Arau subsidiarioak, Lezamaren etorkizunaren kontra

Azaroaren 29an Lezamako udalbatzak arau subsidiarioen berrikustea onartu du, EAJko zinegotzi guztien aldeko botoekin. Horrek udalerriaren industrializazioa ekarriko du erabat.

Herriko auzokideak, elkarteak eta gaitz nontzeko alderdi politikoak aurka egon arren, arau subsidiario berriek Aretxalde auzoko nekazaritzako balio altuko 60 hektarea hartu, eta industriarako lur bilakatu-

ko dituzte. Bertan, erdigunetik kilometro batera, jarduera arriskutsuak eta kutsagarriak jarri ahaliko dira. Halaber, arauak datozen 8 urteetan gaur egungo etxebizitzak %50eraino handitzeko aukera dakarte, baina horren barruan ez dute sartzen babes ofizialeko etxebizitzarik.

Aldaketok Bilboko Metropolitiko Lurralde Plan Partzialaren ondorioak dira, eta, aurrera eramanez gero, herriaren

izaera aldatuko da erabat. Bizi-kalitatea gutxituko da, eta lehen sektoreak, ingurugiroak eta kultur identitateak atzeraezinezko galerak izango dituzte.

Lezama Bizirik koordinakundearen ustez, Udalak auzokoen partehartzea uxatu, eta Lezamaren etorkizuna estutasunean jarri du, interes partikularren alde egiteko.

Gure elkarteak lurraren alde eta zementuaren aurka lan egiten jarraitzeko konpromisoa berresten du. Era berean, lezamarrak gauza bera egitera gonbidatzen ditu, etorkizun duin baten eraikuntzan parte hartuz, eta hori arriskuan jar dezakeenarekiko oposizio aktiboa izanez.

Lezama Bizirik

Txorierriko 300dik gora umek ez eben Euskera Eguna ospatzeko aukerearik izan

Abenduaren 3a, Euskera Eguna! Ea ba, hau bere, amaren eguna, aitaren eguna, langileen eguna legez bihurtzen jakun. Marketin hutsa.

Egia da, Euskeraren Eguna egun guztiak izan beharko leukiela. Edo, *ah, saber noz!* Egun hau ospatzeko beharrianik ez izatea.

Baina momentuz, jaun txit gorenek esan dabela eta ospatu behar.

Txorierrri ez da gutxiago izango, ez por zierto! Ala, *"la casa por la ventana"*, eta Beni-

to (plas-plas, txaloak eta paparrak artez, ze onak garean-*la leche!*), triki-poteo (gehienbat triki, ze poteororako inolako jaun txitik bere ez zan agertu), eta hiru lau egunetan eskola umeentzat ikuskizunak.

Eta hementxe dago *"la madre del corde-ro"*.

Zelako egunak eta ordutegiak aukeratu dira ikuskizun horreek aurkezteko?

Nortzuk izan dira ikuskizun horietara joateko aukeratuak? Eskola publikoan dabilzan umeak (eta ez danak).

Ez al dabe, Colegio Vizcaya, Urdaneta, Ayalde, Munabe, La Merced, Larramendi, Lauro, Askartza... ikastetxeetara doazen txorierritar umeek, Txorierrin egiten dan Euskera Eguna ospatzeko eskubiderik? Eta 2-3 urteko umeek, zer?

Halan da ba ze! gauzak antolatzerakoan tripa-zilari begiratu beharrena, antiparrak jarri eta Sta. Mañetik edo Alkirritik begiradaxo bat bota Txorierriri.

Gabina Aranoa

ASESORÍA
Luis Fernando Aguirre, s.l.

Mateo Bidaurreazaga, 1
Tfno: 94 453 33 28 - Fax: 94 471 06 28
48150 SONDIKA (Bizkaia)


**LIBRERÍA
SONDIKA
LIBURUDENDA**

ARTE EDERRAK - ESKULANAK, E.A.

JESUS MANUEL LANDA ANTOLIN

Fotokopiak, kordermakuta, plastifikatuak,
puzutse, xilifitak, liburuak,
papezgiria eta eskulanak

Mikel Zamudio, 8 • Tel: / Fax: 94 483 16 77
48150 SONDIKA (Bizkaia)

GAMINIZ
RESTAURANTE


AITOR ELIZEGI

Zamudioko Parke Teknologiko • Tel: 94 431 70 25
Basoria 212 Email: gaminiz@euskalnet.net
48170 ZAMUDIO (Bizkaia) www.gaminizsabiola.com

Babes ofizialeko 100 etxebizitza eraikiko dira Derion



Derioko Udalak hitzarmen bat sinatu zuen Eusko Jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailarekin azaroan. Hitzarmen horren bidez, Udalak Rementariñen, Ganbe Goikoan eta Aldekone Goikoan dituen lursailak Eusko Jaurlaritzari saldu dizkio. Bertan babes ofizialeko 100 etxebizitza (BOE) eraikiko dira: 24 Ganbe Goikoan, 53 Rementariñen eta 23 Aldekone Goikoan.

Ganbe Goikoa eta Rementariñeko partzela aurten erosteko administrazio-izapi-deak martxan daude jadanik, eta eraikitze

lanak datorren urtean hasiko dira. ETXE-BIDEx 2008. urteko lehenengo hiru-hilekoan zozketatuko ditu eta Derion errolatatutakoek izango dute lehentasuna. Aldekone Goikoako partzela aurrerago erosiko da.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak 12.085.079 euro inbertituko ditu lanotan.

Beste alde batetik, Udalak aztertuko du udalerrian hutsik dauden ekipamendu-partzelak alokairu sozialeko zuzkidura-lojamenduetarako erabil ote litezkeen. Udalak doan utziko lizkioke Eusko

Oker zuzenketa

Loiuko liburutegiaren eta KZgunearen inaugurazioaren berri eman genuen aurreko alean (8. orrialdean); albiste horretan liburutegian 2.000 liburu bazirela aipatu zen, baina informazio hori ez da zuzena: liburutegian badira 8.400 liburu. Beste alde batetik, liburutegi horretan haurrak jolasteko gune bat bazela adierazi zen, baina liburutegian ez dago jolas gunerik, haurrei zuzendutako beste liburutegi bat baizik.

Albistean jasotakoaren arabera, hilean Loiuko 90 lagun inguruk erabiltzen zituzten liburutegia eta KZgunea; datu hori ere ez da zuzena: erabiltzaileak 250 dira. Azkenik, KZgunea goizez nahiz arrastiz zabalduko zutela aipatu genuen; KZgunearen ordutegia, ordea, arrastiko 6etatik 8ak bitartekoa da.

Jaurlaritzari, horrek alokatzeko zuzkidura-lojamenduetarako erabil ditzan.

Udala eta Eusko Jaurlaritzaren arteko hitzarmena beste aurrerapauso bat da etxebizitzaren udal planean. Ganbe Goikoan 160 etxebizitza tasatu eraikitzeak hasiera eman zion plan horri. Udalak etxebizitza horietatik 100 zozketatuko ditu urtarilaren 13an, eta gainontzekoak geroago. Era berean, Rementariñe eta Aldekone Goikoan 225 babes ofizialeko etxebizitza egingo dira, sustapen pribatuaren ekimenez.

**AMAIURU ARETXETA**
LA BUENA SUKALDE
COCINA Y ESCALDÓN
VASCALUNA
WWW.AMAIRUAARETXETA.COM
UTXA, STOL DOMINGO AL VIVERO, KM5
BATZOR SAN ANDUELA II ZAMUDIO
TEL. RESERVAS 94 452 29 80

Osteopatía zentroa
Luis M^o Asensio
(Kinesioafista - Osteopata)
**Lasai**
OSTEOPATIA
Larrebarri, 1 Iorja - 48160 DERIO
Tel: 94 454 10 28 - Sakelakoa: 655 74 24 69
email: osteopatialasai@euskalnet.net

**CARNICERIA ALBERTO**
Txorierni Etorbidea, 5
Tel. 94 452 08 25
48170 ZAMUDIO

**LOTERIA LEZAMA**
BONOLITIA LOTERIA PRIMITIVA
1-X-2 SARTZARRA
EUROMILIOIAK
CARINOTAKO ETA TRINOTAKO
LOTERIEN ERGEBERAK
ZERBITZUA, ENPRESENTAT,
TASERENTZAT, ETAB
ARITZUA: 374 • 48196 LEZAMA (BIZKAYA) • TELEFONA: FAX: 94 455 64 87

JOSTUNAK
ANIZTUTAKO KONPOUNTAK
Aniztasun, jarraitutasun eta garapeneko jostunak konpainietako talerak
Euskoal Herriko ohiko jantzeria eskatu
Gasteiz, 14 • Telefonoa: 94 455 64 84
48160 DERIO (Bizkaia)

AKUPUNTURA
Sofia Ibañeta
Telefonoa: 94 452 13 67
ZAMUDIO


Puxikak, genero-indarkeria salatzen



Azaroaren 25ean Genero-Indarkeriaren Aurkako Nazioarteko Eguna izan zen, eta mundu osoan hainbat ekintza egin ziren, emakumeen aurkako indarkeria salatzen. Derioko Udalak eta Sutondoan elkarrekin manifestazioa antolatu zuten. Martxa elizatik atera eta udalerriko kaleetatik ibili zen. Manifestariek puxika zuri bana eramane zuten. Herriko Plazan manifestu bat irakurri zuten eta, horren ostean, puxikak askatu zituzten zerura.



Truke azoka, Derioko gaztelekuan

Abenduaren 29an, 18:30ean, truke azoka egingo dute Derioko gaztelekuan. Azoka horretan, jendeak aukera du erabiltzen ez dituen gauzez (CDak, arropa, bideojokoak, zertarako diren jakiten ez diren tramankuluak...) libratzeko eta, era berean, behar dituen gauzak eskuratzeko. Truke azokan parte hartu nahi duenak izena eman behar du 944540469 telefonoan.

ZUTARRI S.L.
HARGINTZA, OROKORREAN.

ETXOTANAKO AGINTZARIEN HARRI LABURDUNO BARRUTIAKONKORDIAZ
BERRITATZEA, ITZA ARROPA, SUCULORRA,
KUTZEN HARRI APAINKARRIEN ITXERPIA, ETB...

Gazteluz 125 rikia orria. 48196- Lezama - Bizkaia
Tel. 452.724.182 - Fax 944.398.212
E-mail: zutarris@telefonosk.com

LAPIKO/s.l.
FURNITURARIEN BARRUTIAKONKORDIAZ

LK

Pl. Gasteiz, 67 - 48196 LEZAMA (Bizkaia)
Tel. 94 455 63 88 - 94 455 64 01 - Fax: 94 455 63 90

Mamen Mertzeria

lurrindegia **MAMEN** mertzeria

Golkale kalea, 6. Derio. 94 454 28 60 / 656 79 38 25

ARTIZAR

MAKINA JARTZEN TALERRA

Santa Agata, 3 • Tel. 94 453 01 90 - 48190 SOMAKA

Artista Lurrikaren diseinatuak
Lurrikaren, eta bere lanak
Funtzionatzen dituen diseinatuak
Artista Lurrikaren
Tel. 94 453 01 90

Salon de Belleza
Auxi

Poligonoa Lezama Berriztatze
Mendaketa Berriztatze, 201
Tel. 94 454 53 44
DERIO

Ostia: 1. floor
Gazteak eta haurrak ondoan
Tel. 94 453 01 90
SOMAKA

FONTANERIA DOBA

Berriztatze • lanak

- Etxebizitza
- Sueteak
- Balmugela

94 453 3860
658 75 9084

Euskarazko produktuen katalogoa, Gabonetan ere kontuan hartzekoa

Azaroan, euskarazko produktuen 2006-2007ko katalogoa aurkeztu zuten Donostian. Aurkezpen hori Brexako azokako arrandegian egin zuten katalogoa fresko datorrela adierazteko.

Malores Etxeberria Hernaniko euskara teknikariaren esanetan, "katalogoa gura-soentzat da batez ere, hezkuntzan eta

etxean egiten den inbertsioak segida izan dezan kultur produktuen kontsumoan". Aurtengo katalogora 269 produktu bildu dira; guztiak, 16 urte bitarteko haur eta gazteentzat. Katalogo horretan, disko, liburu, aldizkari, filma, jolas, DVD eta informatika produktuen argibideak eman dira.



Zamudioko aditzari buruzko artikulu bat argitaratu da

Karlos Arregik eta Andrews Nevins-ek Zamudioko euskarazko aditz laguntzaileak aztertu dituzte artikulu batean. Horretarako, Morfologia Distributiboaren Teoria erabili dute, arau sintaktiko, morfologiko eta fonologikoak aintzat hartuta. Artikulua ingelesez idatzita dago eta Mendebalde Kultura Alkartearen web orrian ikus daiteke, Euskalingua aldizkari elektronikoaren azken zenbakian.

Loiuko gaztelekua, urtarrilerako zabalik

Gaztelekua urtarilaren 12an irekitzeko asmoa du Loiuko Udalak. Data hori, ordea, behin-behinekoa da eta, aldatzen bada, jakinarazi egingo da ohiko bideak erabiliz.

Gaztelekua Zabaloetxeko kultura etxean irekiko dute. Lokal dinamizatu izango da; hau da, monitore bat edukiko du. Gaztelekuan ordenagailu pare bat jarriko dute, gazteek kontsultak egiteko edo jolasteko. Horrezaz gainera, hainbat tresnaz hornituko da eta, gazteek hala eskatuz gero, ekipamendu hori handitu egingo da.

Sondikako Areto Futboleko XIX.

Txapelketa, prest

Sondikako Areto Futboleko Txapelketa urtarilaren 28tik maiatzera bitartean egingo da, Udalak antolatutik. Aurtengoa XIX. Txapelketa izango da eta Sondikako taldeek ez ezik beste herrietakoek ere har dezakete parte. Izen emateko epea urtarilaren 2tik 17ra bitartekoa izango da Goronda Beko kiroldegian.



Atondu; atzoko oroimena, lekukotasuna eta biharko



Ane Albisu Iriarte. Donostiarra eta Euskal Filologian lizentziatua. 1976. urtean hasi zan euskal jantziak iker-tzen. Argia dantza taldean, Eusko Ikaskuntzako Folklore Sailean, eta azken 21 urteotan Ikerfolk folklo-re ikerketa-erakundearen folkloreak eta modaren gai-neko hainbat ikerketa eta lan egin ditu. Diseinu mun-duan be zenbait lan egin ditu.

Azaroaren 23an Zamudioko liburutegiak antolatutako hitzaldira hurreratu zan Ane Albisu. Iluntze horretan moztu, barrenak hartu eta josi beharreko hitzak hurrengo honeek izan ziran: atondu, jantzia eta, gehien bat, janzkera.

Testua eta argazkiak: Amagoia Guezuraga

“Baserritarren jantzia gure jantzi nazionala da”

“Bizkaia izan da buruko zapia galdu dauan azken lekua”

Ane Albisu irakasleak eta ikerlariak ekai-nean argitaratu eban Atondu liburua. “Azken 15 urteotan egindako lanaren atal bat da; Argia dantza taldeko Ikerfolk Sailaren proiektua, hain zuzen be”, azaldu eban. Dantzak ez ezik jantziak eta janzkera be ikertu ebazan proiektu horretan. “Jantzia inportantea da; azken batean lehe-nengo ikusten dana hori da. Gure herri-izatea adierazi nahi izanez gero –eta ez bakarrik dantzei jagokenez-, zelan egingo geunke? Hau da, hori edo bestea euskaldu-non jantzia dala esateko, zer daukagu? Ba, baserritarren jantzia”. Bere berbetan, hori da “gure jantzi nazionala”.

XIX. mendearen amaieran eta XX. men-dearen hasieran baserritarrek eta arrantz-a-leak ziran gure kulturaren baloreak –hiz-

kuntza, janzkera...- gordetzen ebezanak. “Eta XX. menderaino heldu jaku baserritar jantzi baltza, tantoduna”. Holan, euskal jaietan eta erromerietan aitite-amamen arropak edo baserritarren arropak erabil-tzen hasi ziran janzkeratzat.

Urteak aurrera egin ahala, janzkera hori estandarizatu, eta jantzi bihurtu da. Beste era batera esanda, toki askotan, jantzi bera erabiltzen da erromeri giroan zein beste era bateko ekintza sozialean (ezkon-tza eta bataio errepresentazioak, sari bana-ketak...) Baina aproposa da hori? Atondu proiektuak horren moduko galderei eran-tzuna emotea dau helburu. “XIX. eta XX. mendeen hasierako janzteko modua azter-tu, eta modu horretan oinarritutako jantzi batzuk egin genduzan. Gure baserritar jan-tziaren sorburura joan ginan, eta jantzi horren alternatiba batzuk proposatu gen-duzan, hainbat egoera ezberdinetan erabil-tzeko. Izan be, lan giroan edo erromeri giro baten janzten dan arropa, ezkontza, bataio... batean be janztea ez da aproposa”.

Beste alde batetik, tradiziozko jantziak eta janzkera zibila be ezberdindu egin behar dira. Lehenengoak Pirinioetan, Erronkarin, Aezkoan eta Zaraitzun baino ez dira mantendu. Horiek festarako edo egoera berezietarako aproposak dira. Janzkera zibila, barriz, Euskal Herri osoan mantendu da. “Hori herri janzkera da; baserritar eta arrantzaleen janzteko era”.

Antzinako jantzien kopia egiteko orduan, hainbat faktore neurtu eta errespe-tatu behar dira (koloreak edo oihal-motak, esate baterako), kopia hori ahalik eta zeha-

Adabuak

-Adabakidun praka eta gonei buruz, esan beharra dago horretarako erabil-tzen zituzten moduak ez zirela, adibi-dez, Amerikako pachtwork-renak. Go-nek, batik bat azpialdean urratzen zire-nez, hortxe jarrita eramaten zuten ada-bakia. Bestalde, gonaren barrena egite-ko maiz erabiltzen zuten beste oihal bat: batzuetan, luzatuaren luzatuaz barrene-

rako oihal gehiago geratzen ez zitzaie-lako; bestetan, berriz, oihal ona kanpo-an utzi eta kalitate kaskarrekoa barrene-an jartzen zutelako. [Atondu, 81. or.]

-Adabuekin ez da gonarik egiten.

-Anguiozarrek aipatzen du Txorierriko gonak koloretsuak zirela, baina honen eredu Tolosan ere badago. Ez da feno-meno mugatua.



Argazkia: Ikerfok bilduma

gaurko iturria



tzena izan dadin. "Dokumentu grafikoak ondo aztertu behar doguz, eta gizakia, garai horretako egoera ekonomikoa eta beste arlo batzuk be kontuan hartu behar dira. Ez da gehiegikerietan ibili behar".

Atondu proiektuan ibili diranek 300 bat jantzi-diseinu egin dabez, eta bertan, janzkera duina eta txukuna proposatzen deuskue.

Jantzi horreetako ezaugarriak garrantzitsuenak zapia eta txapela doguz. "Beti jarri behar dira. Bizkaia izan da buruko zapia galdu dauan azken lekua". Zango eta oinetan galtzerdi baltzak eta abarketa zuriak jantzi behar dira; edo artilezko galtzerdiak eta narruzko edo gomazko abarkak.

Aholku orokorrak, eredu berriak egiteko orduan

-Gaur egungo gustuak alde batera utzi, eta eredu zaharren arauak ahalik eta zehatzen jarraitu behar zaie.

-Jantzia non erabiliko den kontuan hartu behar da: kaleran, oholztan edo antzokian.

-Eredu berriak asmatuak ala birsortuak diren azaldu behar da. Ezin dira tradiziozkoak balira bezala aurkeztu.

-Oihalei garrantzia eman behar zaie.

-Jantzeko modua kontuan hartu behar da. [Atondu, 99. or.]

Argazkia: Eulalia Abaitua



Nire garaia iritsi da

Nora joateko erabakitze ordua iritsi da. Hurrengorik segurtasunarekin ematen didan zentro bat behar dut. Eta badakiz Txorierri Unibertsitatetara joateko edo lan-merkatara zuzenean sartzeko (praktikak eta guzti errazten dizkirate) prestakuntza onena eskaintzen didatela. Txorierri nik bilatzen dudaren kalitatea duela uste dut.



GOBERNADURA ERAGILEAN
lehenengo LIko zentroa
Madroñera Kudeaketa
Guztiak Saria

HEZIKETA ESKAINTZA

HEZIKETA ZIKLOAK

FABRIKAZIO MEKANIKOA

- MEKANIZAGIA
Geltokia 2.000 ordu
- FIBREKIU MEKANIKOEN LANTZAROA
Geltokia 2.000 ordu
- MEKANIZATUTAKO PRODUKZIOA
Geltokia 2.000 ordu

KIMIKA

- INORGANIKO-KIMIKA
Geltokia 1.400 ordu

ELEKTRIZATEA ETA ELEKTRONIKA

- ERREGULAZIO ETA KONTE-
AUTOMATIZAZIO SISTEMAK
Geltokia 2.000 ordu
- ELEKTRUMAGNETISMOA
Geltokia 2.000 ordu

MERKATARITZA ETA MERKATINA

- MERKATARITZA ETA MERKATIN GESTIOA
Geltokia 1.400 ordu

BATXILERGOA

BATXILERGO TEKNOLOGIKOA

Politeknika Inuztegia Txorierri
Unibertsitatea, 1
(Madrilgo eremua). Gertu.
www.txorierri.net • info@txorierri.net
Tel. 94 403 40 60 • Fax. 94 403 40 61

Oguiza
Hortz Klinika

Oraindik ere irabazten du
Luzerako eta osasunaren
Prestakuntza. Baina orain erabakitzen du
horrekin erabakitzen du
Guztiak Saria. Baina orain
erabakitzen du.

Argutegi ospitalarria. 1 • 48160 LARRIBETZU • Telefonoa: 94 403 88 60

KIMA
Landarak

LANDARE APAINGARRIA

Gutunbidea 19 • Tel.: 94 435 58 00 • Fax: 94 435 61 77
48946 LIZANNA (LIZANNA)

“Euren osasunerako, oso inportantea da umeek hilabete bi kanpoan ematea”

Bilboko Txernobil elkarteak azaroan ekin zion udan Ukrainiako umeak hartzeko kanpainari. Zamudioko Llona-Otaola familia elkarte horren partaidea da duela urte bitik hona. Eta horiek dira, hain zuzen ere, Nikitak euren etxean eman dituen udak.

Testua: Ixaso Marina



“Abegi-familiei ez zaie zaintza berezirik eskatzen, umea familiako beste kide bat balitz bezala hartzeko baino”

barazkiak jateko aukera dute; Ukrainian ezin dituzte hartu, kutsatuta daudelako.

Nikitaren kasuan...

Pediatrara eramaten dugu, eta azken araketan pisua hartu eta hazi egin dela esan digute. Eta lehen Ukrainian sarritan joan behar bazuen ospitalera, orain gutxiago joaten da. Elkarteak hitzarmena du Osakidetzarekin; hala ere, ume horiei, geure seme-alabei emango zenizkiekeen zaintza berak eman behar dizkiezu. Abegi-familiei ez zaie zaintza berezirik eskatzen, umea familiako beste kide bat balitz bezala hartzeko baino.

Zenbat urte dituzte umeek?

Normalean 6 urtetik 17 urtera bitarteko neskato eta mutikoak dira, baina Nikita lau urte zituela etorri zen lehenengoz. Batzuetan salbuespenak egiten dira, umeen egoera eskasa bada edota bizi diren lurra oso kutsatuta badago. Nikitak, adibidez, anai txiki bi ditu, etxean pertsona asko bizi dira, eta ez dute errekurtsio ekonomiko nahikorik.

Zelan moldatu da Nikita Txorierrira?

Etorri zen lehenengo aldia oso txikia zen,

Elkarteak orain dela 10 urte inguru sortu zuten, zein da horren helburu?

Txernobil inguruko umeak udan bertora ekartzea. Haur horiek Txernobileko zentraletik 30-60 kilometrora bizi dira, eta euren osasunerako oso inportantea da hilabete bi kanpoan ematea. Alabek betidanik eskatu digute udan umeren bat etxera ekartzeko, eta elkarteak abegi-familiak behar zituela irakurri genuen egunkarian. Animatu ginen. Uda honetan 319 ume etorri dira Euskal Herrira; eta duela urte bi, 200 ume... Gero eta haur gehiago etortzea da gure asmoa, ahal bada.

Zeintzuk dira ume horiek dituzten gaixotasunik nabarietak?

Tiroideko arazoak, minbizia, defentsak

ahul dituzte... Baina bertora etortzen direnak ume osasuntsuak dira orokorrean, osasun-arazotxoren bat eduki arren. Nikita duela uda bi hasi zen etortzen etxera, eta mutikoak zelako bilakaera izan duen ikusita, lehenago egin ez izana damutzen gara. Mesede handiagoa egingo genuen, behar-bada.

Bertora etortzeak onura handiak ekartzen dizkie, adibidez?

Ukrainian erradiazio handia dago oraindik, eta bost urtean hilabete bi kanpoan ematen badute, euren defentsek hobera egiten dute nabarmenki. Guk ondoan dugu itsasoa, eta hori oso mesedegarria da eurentzat, iodoa oso ondo datorkie-eta. Horrezaz gainera, berton fruta, esnea eta

 **kirolik**

dribbling sport

KIKOLEKIN MENDIAR, FUTBOLA - GAKIOLAKIA, ATLETISMOA - GIMNASIA, HOLEBOL, KIKOLEKIN, KIKOLEKIN, GAKIOLAKIA - DOMINAK, KIKOL OROKORRIA.

AIZKORRI KALEA, 1
TELEFONOA 94 454 10 01
41160 - IZURDIO (Bizkaia)

 **LARRABETZUKO ESTANKOA**

Tabakoa, prentsa, loteria, kintela...

Andra Mari kalea, 1 LARRABETZU
T: 944 358 110

 **Abelino Arraindegia**

Ondo pasa jaietan!

Mikel Duena kalea - Telefonoa: 94 454 11 19
Gorbea kalea, 4 - Telefonoa: 94 602 75 35 / 26
40160 ULKIO



Txernobileko istripuaren 20. urteurrena izan da aurten

Txernobilekoa Historiako istripu nuklearririk larriena da. Hondamendia 1986. urteko apirilaren 26an izan zen. Zentral nuklearreko errektore batean izandako istripuaren ondorioz, maila altuko material erradioaktiboa aske utzi zen atmosferara oso kantitate handietan. Erradiaktibitate-kantitate hori Estatu Batuek Hiroshima eta Nagasaki hirietan botatako bonbek askatu zutena baino 200 aldiz handiagoa izan zen, eta Bielorrusian, Ukrainian eta Errusian eduki zuen eragina, batez ere.

Nazio Batuen Erakundeak istripuaren ondorioei buruzko txostena argita-

ratu zuen 2.000 urtean. Txosten horren arabera, hondamendiak zazpi miloi pertsonari ukitu zien, eta horietatik hiru milioi umeak ziren. Horrezaz gainera, 165.000 lagun hil ziren, eta kopuru hori hazi egin da urteak pasatu ahala. Urte horretan erradiaktibitateak kutsatutako lurretan 1,8 milioi pertsona bizi ziren.

Beste alde batetik, eta Osasunaren Munduko Erakundearen kalkuluen arabera, lehenengo Sobietar Batasunean 500.000 heriotza baino gehiago izango dira istriputik 25 urte pasa ondoren.

eta ez zuen oso ondo ulertzen non zegoen, zergatik etorri zen, noiz bueltatuko zen etxera... Faltan botatzen zuen ama, baina pixkanaka-pixkanaka bera guregana eta gu berarengana moldatuz joan gara. Pasa den udan ez zela berriro etorriko esan zuen... "Dentistarengana eraman naute-eta!". Baina uda honetan bueltatu da... Egin zuen lehenengo gauza ea dena bere lekuan zegoen ikustea izan zen. Berarekin eta familiarekin telefonoz edo gutunez dugu harremana. Nikita berriro ikusteko gogo handia dugu.

Aste Santuan Ukrainian izan zineten eta Nikitaren familia ezagutzeko aukera izan zenuten...

Bertako jendeak ez du Txernobileko istripuaren gainean hitz egin nahi, ezta euren egoeraren gainean ere... Nikitaren familiaren kasuan, izugarri eskertu ziguten umea hartzea. Oso harrera ona egin ziguten, baz-

"Elkartean parte hartzeko beste era batzuk ere badaude: bazkidea edo boluntarioa izanez, esate baterako"

kaltzera gonbidatzen ziguten, euren etxean lo egitera gelditzea nahi zuten... Baina bertan ez zen inor gehiago sartzen...

Zer-nolako ekarpena egin dizue Nikitak? Elkartu egin gaitu. Nikita etxean dagoeneko bazkalondoa edota afalondoa egiten ditugu. Elkarrekin joaten gara hondartzara, gauza gehiago egiten dugu elkarrekin... Zoriontasuna ekarri digu.

Elkarteak sentsibilizazio-kanpaina zabaldu zuen azaroan, animatu jendea.

Helburu nagusia umei laguntzea da, baina eurek ematen dizuten poztasuna ezin da adierazi. Abegi-familiak umea senidea balitz bezala hartzea baino ez du egin behar, eta horrezaz aparte, elkartean parte hartzeko beste era batzuk ere badaude: bazkidea edo boluntarioa izanez, esate baterako. Elkarrekin programa bi ditu: bata abegi-programa da, eta bestea garapenerako laguntza-programa da. Azken horri dagokionez, Oraneko eskolako sukualdea aldatuko da laster, izan ere, bertan zentral nuklearretik ateratako erregailuak erabiltzen dituzte.

Informazio gehiago:

Txernobil Elkarte

Bidarte gizarte-etxea

Lehendakari Agirre etorbidea, 42

4814 Bilbo

Telf: 670419078



**Larradent
Poliklinika**

Askatasuna Enparantza, 5 - Ba-
48195 - LARRABETZU (Bizkaia)
larradent@yahoo.es
T: 94 455 88 96



Zorionak eta urte berri on!

**Eskerrik asko gudan
izandako konfiantzarengatik**

Gatxetik gorde gaizuz!

Gabon gabeen enborra sukaldean erretzeko ohiturea Euskal Herri osoan zabalduta egoan antxinan. Enbor horri Gabon Sua esaten eutsien leku batzuetan; eta beste batzuetan, Gabon Zuzia, Gabon Subila edo Olentzero Enborra. Tronkoa erretzea Kristautasuna aurreko solstizio-erritua zan, eta Gabonetako kristau-folklore-gaz batera mantendu eben baserri gehienetan.



Antxinako baserriarrentzat Gabon Suak izaera magikoa eban. Etxekoak Gabon gabeen su inguruan bildu eta hurrengo goizean egur zati erre bat baserriaren atarian jartzen eben, horrek etxea eta animaliak gaixotasunetik eta ekaitzetik gordeko zitualakoan.

Jose Mari Satrustegi etnologoaren ikerketen arabera, Nafarroako herri euskaldunetan familiek udazkenean prestatzen eben Gabonetako Enborra, etxerako egurra hartzen eben bitartean.

Lehenago baserrietan sutondoa beheko solairuko oinetxearen erdian egoan, eta lorabereek bertaraino herrestan eroaten eben zuhaitz handi bat. Hori erre, eta "su barria" egiten eben. Su barriak hainbat gatxetatik eta ezbeharretatik babestuko zituan ustea egoan. Etxekoandreak sua hautsez estaltzen eban gauero, txingarra egur gehiegi erre barik manten zedin. Bitartean, antxinatiko berbak botatzen zituan, babes fisikoa eta morala eskatuz.

Animaliek ere jasotzen eben su garbitzailea. Kortaren atean txingar ketsua jartzen zan, eta abereak gainetik pasatu behar ziran. Beste alde batetik, azken ikatz zatiak ganbaran gordetzen ebezan, ekaitzetan pizteko. Era berean, ikatz zati txiki bat kutun baten barruan gorde, eta jaio barrien tximuan jartzen eben.

Denboraren poderioz baserriko sukaldearen estruktura aldatu egin zan, eta horrek behe-sua desagertzea ekarri eban, baita su-erritoaren aldaketea be. Zuhaitzaren edo Gabonetako Enborraren ordez, egur pertsonalizatuak erretzen hasi ziran. Familiako buruak egurra hierarkiaren arabera sartzen eban sukaldean, eta egur-zati bat sutara botatzen eban bakotxean, familiako baten izena esaten eban. Eskaleei zein egoera latza pairatzen ebenei zuzendutako berbak be aitatzen ebazan beti.



EGUNERO ZABALIK

Ordutegia:
12.00etatik 14.00etara
20.00etatik 23.30etara
Ekutia erantsitako
webgunean: 18

Beslorrone 5, Bidea 46160 DERIO
T: 94 454 55 55



GOIZOTZ
Janari izoztuen denda

C/ Mikel Zarate, 5
Telefonoa: 94 453 80 00
www.goizotz.com

Domoka eta jai
egunetan ere zabalik
(9:00 - 14:00)

48150 SONDARA
Bizkaia



Errementeri kalea, 22
Telefonoa: 94 453 57 54
48150 SONDARA (Bizkaia)

www.zerurena.com
e-mail: zerurena@zerurena.com

Larrabetzu

Abenduaren 26a, martitzena

16:30: Olentzeroren opariak zabaltea, ludotekan.

18:00: Xalto pailazoa, gimnasioan.

Abenduaren 27a, eguaztena

16:30-19:30: Akuarelak: Gabonetako murala, ludotekan.

Abenduaren 28a, eguena

16:30: Karaokerako kantak presta-tea, ludotekan.

17:30: Eusko karaokea, gimnasioan.

Abenduaren 29a, barikua

10:45 (Futbol zelaia-aren aurrean): Irteera, Sondikako Jolas Parkera.

16:30-19:30: Ludoteka

17:00: Gabonetako sorpresa, Angulerin.

Urtarrilaren 2a, martitzena

09:30 (Futbol zelaia-aren aurrean): Irteera, Gasteizeko Izotz Jauregira.

16:30-19:30: Tailerra, ludotekan.

Urtarrilaren 3a, eguaztena

16:30: Jokoak, ludotekan.

18:00: *Toni la sal* antzez-lana, gimnasioan.

Urtarrilaren 4a, eguena

10:30 (Futbol zelaia-aren aurrean): Irteera, Barakaldoko Gabonetako Umeen-tzako Parkera.

16:30-19:30: Ludoteka.

Urtarrilaren 5a, barikua

18:00: Haur jaia, frontoian.

Anari. Argazkia: Galder Izagirre



Hori Baik antolatutako ekitaldiak

Abenduaren 22a, barikua

18:00: *Sorginen madarikazioa* umeentzako filma, Hori Bain. Ostean, txokolatada.

Abenduaren 23a, zapatua

15:30: Olentzero bila, Hori Bain.

Abenduaren 24a, domeka

18:00: Olentzero dator. Irteera: zerratik.

Abenduaren 25a, astelehena

19:00: Bertso saioa, Unai Iturriaga, Igor Elortza, Arkaitz Estiballes eta Xabi Paiaren eskutik. Hori Bain.

Abenduaren 27a, eguaztena

19:00: Zor ekologikoa: *Nork nori zor?* Hitzaldia, Hori Bain.

Abenduaren 28a, eguena

20:00: Iñigo Aranbarriren *Hizlandia* liburua aurkeztea, Hori Bain.

Abenduaren 29a, barikua

15:00 (Autobus geltokian): Irteera, Gabo-

netako haur jolastokira.

Abenduaren 30a, zapatua

22:00: Blues kontzertua, Blues Stop taldearen eskutik, Hori Bain. Ostean, gau elektronikoa.

Abenduaren 31, domeka

Urte amaierako kotilioia Hori Bain. Gaia: euskal mitologia.

Urtarrilaren 3a, eguaztena

19:30: Alain magoa, Hori Bain. Nagusien-tzako saioa.

Urtarrilaren 5a, barikua

18:00: *Rosi Erosi* umeentzako antzerkia, Behi-Bis taldearen eskutik. Ostean, txokolatada eta Ipuin Lehiaketako sari banaketa.


Urtarrilaren 6a, zapatua

09:00: Auzoz auzo Larrabetzu, plazan.

22:00: Kontzertua: Anari, Hori Bain. Ostean, gau elektronikoa.

Hästens 
since 1852
Guztion ametselako
ohreak

www.hastens.com



ARTEAGA koltxoi-denda

Derioko Seminario • 94 454 51 47 • DERIO

Derio

Abenduaren 22a, barikua

Irteera, *Olentzero eta Mari Domingi* antzez-lana ikustera, Sondikako Kultur Etxean. Ludotekak antolatua.

Abenduaren 23a, zapatua

11:00-13:00: Olentzero tailerra, ludotekan.
13:00-20:00: Graffiti lehiaketa eta *break dance*, Astintze kalean. Arte Urbano taldeak antolatua.
16:00: Uribe Kostako Pilota Txapelketa, pilotalekuan. Atxiki pilota taldeak antolatua.

Abenduaren 24a, domeka

11:00-14:00: Kirola gurasoekin, kiroldegian. Ludotekak antolatua.
17:00: Olentzero, udaletxean. Ipar-Alde abesbatza eta Tximintx euskara taldearen eskutik.

Abenduaren 26a, martitzena

09:15: Irteera, Barakaldoko Gabonetako Umeentzako Parkera. Ludotekak antolatua.
Irteera, Barakaldoko Gabonetako Umeentzako Parkera. Gaztelekuak antolatua.

Abenduaren 27a, eguaztena

10:00-13:00: Ludolinpiadak, ludotekan.
20:00: Irteera, Euskadi-Serbia partidara, San Mamesen.
20:30: Irteera, *Mayumana* antzez-lana ikustera, Arriaga antzokian. Sarrerak abenduaren 19tik aurrera salgai Udaletxean.

Abenduaren 28a, eguena

Risoterapia tailerra, gaztelekuan.
10:00-13:00: Collage tailerra eta ludolinpiadak, ludotekan.
Irteera, zinemara. Ludotekak antolatua.
18:00: Dantza-omenaldia/Festa handia, Nagusien Etxean.

Abenduaren 29an, barikua

Risoterapia tailerra, gaztelekuan.
10:00-18:00: Ludolinpiadak, ludotekan.

Irteera, antzerkita, Sondikan. Ludotekak antolatua.

19:00: Areto-futbol Triangeluar (mutilak), kiroldegian. Pozgarri FST-k antolatua.

19:00-22:00: Truke Azoka: liburuak, diskoak, arropa... Santzoka-Gaztelekuan.

Abenduaren 30a, zapatua

16:30: Xakeko Herriko Opena, kiroldegian. Derioko Xake Taldeak antolatua.
18:30: Dantza agerraldia, kiroldegian. Lainomendi dantza taldearen eskutik.
18:30: Kapoeira tailerra, gaztelekuan.
22:30: Irteera, *Mayumana* antzez-lana ikustera, Arriaga antzokian. Sarrerak abenduaren 19tik aurrera salgai Udaletxean.

19:00: Oinarritzko kirola txirrindularitzan, Miguel Madariaga eta Euskaltel-Euskadi txirrindulari-taldearen eskutik.

Urtarrilaren 4tik 6ra

"Baserritik herrira" erakusketa, Eskulan Tailerraren tokian (Goiko kalean). Txori Berri Kultur Alkarteak antolatua.

Urtarrilaren 4a, eguena

Irteera, Gasteizko Izotz Jauregira. Gaztelekuak antolatuta.
10:00-13:00: Magia tailerra, ludotekan.
16:00-19:00: Irteera, Lezamako Gabonetako haur-parkera.

Urtarrilaren 5a, barikua

10:00-13:00: Tailerrak, ludotekan.
18:00: Erregeen kabalgata, ibilbidea: elizatik udaletxera.
19:30: Gabonetako kantaldia, elizan. Ipar-Alde abesbatzaren eskutik.

Urtarrilaren 6a, zapatua

12:00: Areto-futbol partida (neskak). Euskadi-Bilbo FST, kiroldegian. Pozgarri FST-k antolatua.
12:30: Gabonetako kantaldia, elizan. Ipar-Alde abesbatzak antolatua.
19:00: *Todos somos uno* antzez-lana, institutuan. Sutondoan elkartearen eskutik.

Urtarrilaren 7a, igandea

10:00: Areto-futboleko Gabonetako Torneo, kiroldegian/udal futbol zelaian. Arteaga FST-k antolatua.
10:30: Aldi Bereko Xakea, kiroldegian. Derioko Xake Taldearen eskutik.
18:00: *Zuecos y naranjas* umeentzako antzerkia, institutuan. Sutondoan elkartek antolatua.

Urtarrilaren 8ra arte

Derioko III. Argazki Lehiaketaren erakusketa, Larrabarri baserrian.

Urtarrilaren 18ra arte

Janaria batzea, Saharara bidaltzeko. Udaletxean, gaztelekuan eta Nagusien Etxean.



Abenduaren 31a, domeka

11:00-14:00: Kirola gurasoekin, kiroldegian. Ludotekak antolatua.

Urtarrilaren 2a, martitzena

Yoga eta lasaitze tailerra, gaztelekuan.
11:30-13:30 eta 16:00-19:00: PIN-Hawai, kiroldegian. Ludotekak antolatua.
16:00-19:00: Esku Pilota tailerra, kiroldegian. Ludotekak antolatua.

Urtarrilaren 3a, eguaztena

Yoga eta lasaitze tailerra, gaztelekuan.
08:30: Irteera, patinatzerara. Ludotekak antolatua.
10:00-13:00: *Kontu kantoi* antzez-lana, ludotekan.

JANARIDENDA
Josune Zabala Goikoetxea

Garaioitza, 74
48198 Lezama - BIZKAIA
Tel. 944 555 248

OXANGOITI
Kutur Elkartea **TABERNA**

Euskal presoak etxera!
Arexalde, 54 - Tel.: 94 455 50 37
LEZAMA

TXORIERRI



centro dental

Rocio Astorkia Bermeaguirre
Kol. zenbakia 48000759

Kepa Herguedas Manso
Kol. zenbakia 48000757

Maria Conde Bilbao
Kol. zenbakia 48000753

Misioa: 8. etabea
48150 SONDIKA (gaithekoen barruan)
Telefona: 94 471 16 39
Larrialdia: 670 985 885

Goiri 78 S. L.

Servicio Oficial



POL. IZARZA
Tfnoa.: 94 453 25 15
94 453 39 31
48150 SONDIKA (Bizkaia)

IRUSTA TABERNA

*Urte barri
amnistiaaren egarri*



LARRABETZU
Tel.: 94 455 84 77

Moro's Pub

Dr. Martínez de Zaldueño
MÉDICO-ESTOMATOLOGO
PROFESOR DE ODONTOLÓGIA DE VFF/LMV
PROFESIS PANKY EL.98

Clinica Sondika Dental

Manteniendo su Goiri 78 Vital desde 1985

C/ Goiri, 2
48150 Sondika Bizkaia
Tel.: 94 453 54 40
Fax: 94 453 11 68
e-mail: sondikadental@euskalnet.net
web: www.euskalnet.net/sondikadental

AM

Formación
y Traducciones

- Ingelesa maila guztietan
- Eskolak enpresetan
- Cambridge Unibertsitatetako azterketak prestaketa, EOI...
- Itzulpenak hizkuntza ezberdinetan

Garaioztza 120 D
48196 LEZAMA
T: 94 455 64 69

Erremente 16
48150 SONDIKA
T: 94 453 64 08

amtraducciones@euskalnet.net
www.amtraducciones.com

Nra Autoocasion NA

IMPORTAZIOA ETA SALMENTA



GERNIKAKO ARBOLA 10 (TRASERA) 48180 DERIO-BIZKAIA

Mobilak: 686 07 06 41 648 16 77 12
Telefona-Fax: 94 454 51 92

www.nraautoocasion.com info@nraautoocasion.com

LEZAMA MOTOR

- Garantia
- Mecánica
- Electricidad
- Herramientas
- Pie - J.T.V.

Reparación y mantenimiento
vehículos de cualquier tipo

Desmontaje y montaje
Parámetros de Compresión

Polígono Industrial, Pasa Pe. F.
Barrio de, plaza de, 10000
48196 LEZAMA
Teléfono: 94 455 64 69
Fax: 94 455 64 69

Jatetxea SAN ISIDRO

FINANZAKO ETAN ESPEZIALIZATUA ETA FINANZAKO GONIZTZA APARTA

ESKONTZAK, BATAJOAK, JAUNARTZEAK

Karta zerbitzua - Laneko zerbitzuak - Jantoki pribatuak
Jantoki Irakurtzeak 180 toki - Sakalariak tradizionak

Telefona: 94 454 07 35
Fax: 94 454 14 18

Mungaiak etabidea, 23
48190 DERIO

BASALBEITIKO TXAKOLINA

Bizkaiko Txakolina
Denak berak dira txakolina



Garaioztza 120 D, 37
(LEZAMA)
94 455 61 45

Hotel Tryp Sondika

★★★★

Gabonetako
menu bereziak
enpresentzat




Carretera de la Avanzada, 2-4 • SONDIKA - 48150
Tel: (34) 94 530052 • Fax: (34) 94 530620
E-mail: tryp.sondika@solmella.com

TRYP
HOTELES

Zamudio

Abenduaren 22a, barikua

09:30 (Errepide nagusiko autobus-gelto-
kitik): Irteera, *Olentzero eta Mari Domingi*
antzezlanak ikustera, Sondikako Kultur
Etxean.

Abenduaren 23a, zapatua

10:00: Plater-tiro saioa, Teknologia Par-
ke tiro-zelaian. Txorierri Ehiza eta Arran-
tza Elkarteen eskutik.

Abenduaren 24a, domeka

Olentzero. Zehaztasunak ludotekan,
abenduaren 22an.

Abenduaren 26a, martitzena

16:00-21:00: Umeentzako parkea, kirolde-
gian.
19:30: Irteera, *Olimplaff* antzezlanak ikuste-
ra, Sondikako Kultur Etxean.
20:00: *Birusak erasoan* antzezlanak, kirolde-
gian. Antzezkitzuna taldearen eskutik.

Abenduaren 27a, eguaztena

16:00-21:00: Umeentzako parkea, kirolde-
gian.
18:30 (Errepide nagusiko autobus-gelto-
kitik): Irteera, Euskadi-Serbia partidara,
San Mamesen.

Abenduaren 28a, eguena

16:00-21:00: Umeentzako parkea, kirolde-
gian.
19:00 (Errepide nagusiko autobus-gelto-
kitik): Irteera, *Mayumana* antzerkia ikus-
tera, Arriaga Antzokian.
20:00: *Zirkus Mirkus* antzezlanak, kirolde-
gian. Detraka taldearen eskutik.

Abenduaren 29a, barikua

16:00-21:00: Umeentzako parkea, kirolde-
gian.



Euskal selekzioa ikusteko aukera dago. Argazkia:
Artxihoa: Astore. "Euskadiko futbol selekzioaren his-
toria", Joseba Gotzon. Ediciones Beitia. 1998

20:00: Olentzerori Gutuna VII. Lehia-
ketaren sari banaketa, kiroldegian, Laga-
tzu Euskera Alkartek antolatua. Ostean,
Txan magoa.

Abenduaren 30a, zapatua

10:00: Plater-tiro saioa, Teknologia Par-
keko tiro-zelaian. Txorierri Ehiza eta
Arrantza Elkartek antolatua.
16:00-21:00: Umeentzako parkea, kirolde-
gian.
20:00: Txan magoa, kiroldegian.

Abenduaren 31a, domeka

Egun erdiko irteera, Urkiolara, Arroeta
mendi taldeak antolatua. Argibide gehia-
go, 946088285 telefonoan.
01:00-05:00: Urte amaierako kotiloia, A-
dintsuen Etxean.

Urtarrilaren 2a, martitzena

15:00 (Errepide nagusiko autobus-gelto-
kitik): Irteera, *Kubo magikoa* filma ikuste-
ra.

Urtarrilaren 3a, eguaztena

09:30 (Errepide nagusiko autobus-gelto-
kitik): Irteera, Barakaldoko Umeentzako

Parkera. Izena emateko azken eguna:
abenduaren 27a.

Urtarrilaren 4a, eguena

11:00: (Errepide nagusiko autobus-gelto-
kitik): Irteera, Lezamako Jolas Parkera.
Izena emateko azken eguna: abenduaren
27a.

Urkiolara joango dira Arroeta
Mendi Taldekoak



Loiu

Abenduaren 22a, barikua

18:50 (Zabaloetxetik) eta 19:05 (Larron-
dotik): Irteera, *Olentzero eta Mari Do-
mingi* antzezlanak ikustera, Sondikako
Kultur Etxean.

Abenduaren 24a, domeka

17:00: Olentzero, ibilbidea: Klaratarren
komentutik frontoira. Gabon kantak,
opariak...

Abenduaren 26a, martitzena

Ipuin kontalaria, Zabaloetxeko Kultur
Aretoa. Apika Taldearen eskutik.
18:50 (Zabaloetxetik) eta 19:05 (Larron-
dotik): Irteera, *Olimplaff* antzezlanak i-
kustera, Sondikako Kultur Etxean.

Abenduaren 27a, eguaztena

09:45 (Larrondotik) eta 10:00 (Zabalo-
etxetik): Irteera, Gabonetako Umeen-
tzako Parkera.
17:00: "Loiuko Udala" Gabonetako
Postalen XIII. Lehiaketaren sari banake-
ta, liburutegian.
18:00: Fotonobela tailerra, liburutegian.

Abenduaren 27tik urtarrilaren 12ra

Liburu berrien erakusketa, liburute-
gian.
Gabonetako postalen erakusketa,

Kultur Etxean.

Abenduaren 28a, eguena

18:00: *Magia potajiaz*, magia saioa, Mar-
sel magoaren eskutik.
19:00-20:30: Umeentzako III. Azoka Txi-
kia, Kultur Aretoa.

Abenduaren 29a, barikua

17:00: Gabonetan eguberriak ospatzen,
Kontu kantoi ipuina.
19:15: Tikitixa emanaldia, Kultur Etxe-
ko gimnasioan. Udal tailerreko ikasleen
eskutik.

Abenduaren 30a, zapatua

17:30: Txori Herri Gabon Kanten Festi-
bala, San Pedro elizan.

Urtarrilaren 2a, martitzena

18:00: *Bazen behin* antzezlanak, Kiko eta
Koko pailazoen eskutik.

Urtarrilaren 3a, eguaztena

18:00: *Rosi erosi* antzezlanak, Behi Bi's tal-
dearen eskutik.

Urtarrilaren 4a, eguena

12:00-14:00 eta 17:00-20:00: Umeentzako
parkea eta tailerrak, frontoian.

Urtarrilaren 5a, barikua

12:00-14:00 eta 17:00-20:00: Umeentzako
parkea eta tailerrak, frontoian.

Jai zortontsuaki!



Liliak Loradenda

Erdiko kalea, 2
Telefonoa: 94 454 18 83

48016 DERIO
Móbilak: 657 79 75 98

BASKOLAN S.L.
construcciones

**Fatxadak, teilatuak,
terrazak eta patioak
konpontzea eta irazgaitzak egitea**

Txozna pol., 2. pabilloa
Idorola, 5
48160 DERIO (Bizkaia)
E-maila: baskolan@hotmail.com

Tel.: 94 454 38 83
Tel. eta faxa: 94 454 38 13

**CAFETERIA
CENTURION**

**Especialitateak:
gozari eta pintxoak**

Lehendakari Leizaola Plaza, 6
Telefonoa 94 452 10 49 - Zamudio


**TOLDOS
TXORIERRI**

TOLDOS E. GOYOAGA

Torrearragolti Ind. P2
48170 ZAMUDIO
Tel.: 94 452 12 58
Faxa: 94 452 07 44
Gasolindegi ondoan

- Lona industrialak
- Sareak
- Eguzki-ohialak
- Alokatzeko lonak




**GOSARIAK,
LUNCHAK,
KLASE ASKOTARIKO
PINTXOAK**

**PEÑA ATHLETIC
BETI HARROBIA**

Txorierra Etorbidea, 30 - 48150 SONDIKA Bizkaia - Tel.: 94 453 29 97

**JUSTERRAK
TABERNA**

Zazpika Ibaia, ZAMUDIO
94 405 80 27

ETXEAN GURE DOGU

Eguneko menua
Asteburuetan kalzolak
Afariak (aldeaz suarelik eskatuta)



ne

ileapaindegia

kolatum adin horizontala
duten zerbitzua
atengabeko ordutegia
hitcordua gurrietik eskatuta
Tifoa: 94 454 35 80
Goiko kalea, 2 - 48160 Derio

**Gabonetan be euskeraz bizi
ZORIONAK**

**LA
GA
TZU**

ZAMUDIOKO
EUSKERA
AIKARTEA

**zamudion euskeraz?
hoba ez!**





OPTICA MODERNA

Erdiko, 4 - 48160 DERIO - Telefonoa 94 454 37 99

KALITATE BIKAINA, BEREHALAKO ERANTZUNA

hormigones

[H]
de zamudio

- Hormigoi-kamiol ugariak eta modernak
- Ezin habeto kaketutako planta
- Obrenentzako gurea sakana

Torrearragolti Ind., 20
48170 Zamudio (Bizkaia)
Tifoa: 94 452 20 70 - Faxa: 94 452 31 65
e-mail: hormizamudio@jazzfree.com



electricidad derio elektrizitatea

Kondu elektrikoak • Instalazioak • Mantentzeak

Proiektuak eta
material elektrikoaren salmenta

Azken Kalea, 1 - Tel.: Fax: 94 454 31 45 - 48160 DERIO (Bizkaia)



**CAJA LABORAL
EUSKADIKO KUTXA**

Txori Herri Etorbidea, 28
Telefonoa 944 711 319
Faxa 944 533 540
48150 Sondika / Bizkaia

Euskal Herria, 1
Telefonoa 944 543 682
Faxa 944 541 612
48160 Derio / Bizkaia

Lezama

Barikuetan

Eskualdeko Pilota Txapelketa, Pilota Elkartek antolatua.

Zapatuetan

11:00: Bizkaiko Pilota Txapelketa, Pilota Elkartek antolatua.

16:30: Uribe Kostako Txapelketa, Pilota Elkartek antolatua.

Abenduaren 22a, barikua

Olentzero jaia, eskolan. Eskolak eta Gurasoen Elkartek antolatua.

19:30: Irteera, *Olentzero eta Mari Domingi* antzezlanak ikustera, Kultur Etxean.

Abenduaren 23a, zapatua

20:30: Irteera, *break dance* ikustera, Basauriko Sozial Antzokian.

Abenduaren 24a, domeka

17:30: Olentzero jaia, plazan/frontoian. Udala, Zorritzetan eta Gurutze dantza taldeak antolatua.

Abenduaren 26tik 29ra

Haur eta gazteei zuzendutako irteerak, Sondikako Kultur Etxera.

Urtarrilaren 2tik 4ra

Umeentzako parkea, frontoian.



Sondika

Abenduaren 22a, barikua

18:00 eta 19:30: *Olentzero eta Mari Domingi* antzezlanak, Kultur Etxean.

Abenduaren 24a, domeka

17:00: Olentzero eta Belen biziduna, irtee-

ra: udaletxetik.

Abenduaren 26a, martitzena

17:00 eta 19:30: *Olimplaff* antzezlanak, Kultur Etxean.

17:30-20:30: Graffiti tailerra, Gaztetxean.

Abenduaren 26tik 28ra arte

11:00-13:00: Maskara tailerra, sorgintxoarena... Ludoteka Ik antolatua.

11:00-14:00: Igeltsuzko maskara tailerra, txotxongiloena, sukaldaritzarena... Ludoteka IIk antolatua.

Abenduaren 27a,

15:30: Irteera, Barakaldoko Gabonetako Umeentzako Parkera.

Irteera, Euskadi-Serbia partidara, San Mamesen. Gaztetxearen eskutik.

Abenduaren 28a, eguena

17:30-20:30: Graffiti tailerra, gaztetxean.

18:00: *La profecía de las ranas* filma, Kultur Etxean.

Abenduaren 29a, barikua

12:00-14:00 eta 16:00-17:00: Haur eta gazte-

entzako Jolas Parkea, Goronda Beko kiroldegian.

17:30-20:30: Graffiti tailerra, gaztetxean.

Abenduaren 30a, zapatua

12:00-14:00 eta 16:00-17:00: Haur eta gazteentzako Jolas Parkea, Goronda Beko kiroldegian.

Urtarrilaren 2an, martitzena

Maketa tailerra, gaztetxean.

Urtarrilaren 3a, eguaztena

15:30: Irteera, Gasteizko Izotz Jauregira.

16:00: Irteera, Getxoko Camelot Park-era. Fimo tailerra, gaztetxean.

Urtarrilaren 4a, eguena

Play 2 Txapelketa, gaztetxean.

Urtarrilaren 5a, barikua

Beira-ale tailerra, gaztetxean.

Urtarrilaren 12ra arte

"Sondikako Udala" XIV. Gabonetako Postalen Lehiaketaren erakusketa, Erakusketa Aretoa.



Gorbea, 8 48180 DERRIO

Tfnoa/faxa: 94 454 07 69

Opariak



Estankoa

PEREA OLABARRIETA

FOTERI TABERNA



Andra Mari Kalea, 22
Telefono: 455 80 95

48195 LARKAULTZU-Bizkaia

Urte barri on!



ZORRIZKETAN
LEZAMAKO EUSKERA ELKARTEA

Gabon zoriontsuak
lezamar eta
txorieritar guztioi



BATAK BESTEAGAZ LEZAMARRAK EUSKARAZ
Tel.: 94 455 60 76

ETNEKO ZERBITZUETAN ESPEZIALIZATUAK



VIZCANA DE PETROLEOS, S.L.

Gasóleo a domicilio

902 330 009

vp@gasoleosvp.com

harategia - urdalategia

MIGUEL

ESPEZIALITATEAK:
URDAIAZPIKOA
ETA GAZTA



Mikel Deuna, 7 * DERRIO 48160 * T: 454 52 94



POL' TENA
TABERNA

Andra Mari
Tfnoa: 4558407

LARRABETZU
BIZKAIA



Txepetxa aek-euskaltegia

txepetxa@adurri.net

Zorionak eta urte berri on
eutsi euskaraz berba
egiteko konpromisoari



Gorbea kalea, 5
48100 DERRIO
Tel: 945 943 902



Kamisetak
Poloak
Kirol-jertseak
Zapiak

www.kriketa.com

Txorierriko serigrafia



Gorbea, 6 (estankoreh ondoan)
Telefonoa: 94 454 51 54
48160, DERRIO

Zeluna

haurrentzako arropa
0-16 urte bitartean

Pobreziari ez!

Gabonetan ez ahaztu beste errealitate bat dagoela

Gabonetan sartuta, neurri gabeko kontsumoari ekiteko deiak etengabeak dira geurean, baina isilik joan berri da 2006ko abenduaren 10a, Giza Eskubideen Aldarrikapenaren urteurrena ospatzeko aukeraturako eguna. Egun horretarako Federico Mayor Zaragozak idatzi eta hainbat pertsonen eta taldeen Bizitzaren, bakearen eta berdintasunaren aldeko aldarrikapena sinatu zuten. Guk aldarrikapen horren laburpentxoia ekarri nahi izan dugu orri honetara, Gabonetako kontsumismoan murgiltzen garenean, beste errealitate bat dagoela kontuan izan dezagun.

FAOk adierazi berri duenez, munduan 35.000 haur gosez hiltzen da egunero. Eguneroko neurri gabeko genozidioa da hau. Une berean, munduan egiten den eguneroko gastu militarra 2.800 milioi dolarrekoa da. Ez omen dago bitartekorik HIESa ikertzeko, baina industria militarra zuzentzen du ekonomia.

Premiazkoa da justizian oinarrituriko banaketa egitea. Bortxakeria justifikaezina da, baina oinarrian dituen egoerak tentuz aztertu behar dira. Gero eta txiroagoak diren herrien natur baliabideen ustiapen basatiari eusten zaio, bertako herritarren migrazioa bultzatuz eta berauen duintasuna zapuzten da. Benetako demokrazia ez da erositako botoen bidez, agintearen jarraipen itsuz edota beldurrez eraikitzen, horrela ezin dakieke munduak bizi dituen erroka handiei aurre egin.

Agintari batzuek beraien ardura politikoak aspaldian baztertu zituzten, balore



Testua eta argazkia: Behar Bidasoa ONGD-GKE

unibertsalen ordez merkatu legea hautatuz. Ondorioa argia da, aberastasuna esku gutxitan metatu den bitartean, etendura soziala eta ekonomikoa indartu dira bazter guztietan.

POBREZIARI EZ! Mundu mailako aldarrikapenaren bidez, Milurteko Helburuak betetzeari lehentasuna eman diezaiozten eskatu behar zaie agintariei. Nazioarteko Komunitateak amaiera eman behar dio basakeria horri. Nazio Batuetako Gutunak dioen bezalaxe, herriak dira bere etorkizuna erabaki behar dutenak. Gaur, elkarlanerako eta elkarriketarako gaitasuna dira beharrezkoak. Ezinbestekoa da gatazkei konponbide baketsua bilatzeko ahalegina egitea, besteekiko begirunea eta elkar ulertzea bultzatzen duten jarrerak indartzea;

Besteak beste, Giza Eskubideak egunero bideratuz. Premiazkoa da intelektualek, artistek, hezitzaileek, zientzialariek...ekintzara jotzea. Pertsonen garaia iritsi da. Eta, batez ere, gazteena, bestelako mundu bat bideragarria dela pentsatzen duten guztien. Instituzioek eta hedabideek lagundu behar dute, behingoz. Ezinbestekoa da herriek, mobilizazioak bideratuz, jendarte, kultura, politika eta izpiritu mailako erresistentzia garatzea, bortxakeriaren eta justizia ezarekin eskutik ez joatea, munduak bizi duen egoera salatzea.

Pixkana-pixkana aurrerapen nabarmenak lortzen baditugu, "mundu osoak kontzientzia hartzea" lortuko dugu; hau da, herrien benetako independentzia lortuko dugu.

TEL S.L.
CONSTRUCCIONES Y REFORMAS
SERVICIOS INTEGRALES

IBORRERO NALGA
RUE. 1002411. 490 11
49100 MURIOZ, LEZAMA

TELÉFONO: 94 452 31 40
FAX: 94 424 01 00
MÓVIL: 649 70 11 22

MULTIPRECIO RAKEL

Carretera de Leizaola - 40100 MURIOZ
Sabiako telefonoa: 945 70 33 35

LEJARRRENE JATETXEA
Garaioitza auzoa, 102 • LEZAMA • T: 94 455 05 46

Club Hípico Aretxalde
Pony club • Zaldiak eta ibetarak
Alokalderako lekua • Apaketa zerbitzua
Baita • Txangoak • Animalien heziketa

Telefonoa:
IBON - 659 90 75 88

AV. DE LA VITICULTURA, 10 • 48100 LEZAMA

FMC Foret, S.A.

Zamudioko Fabrika
San Martín auzoa, 130
Zamudio (Bizkaia)
Tel.: (94) 452 50 50
Faxa: (94) 452 11 46

FMC foret

CAFETERIA GRISSON

Etxera eramateko janaria!
Auzoetatik igandera zabala

Garaioitza, 12 B, baina
Telefonoa: 94 455 40 95
www.cafeteriagrison.com
48196 LEZAMA (Bizkaia)




**C.D.H. LOS AMIGOS
DEL CABALLO**

Olaxarre Baserria, 184
Garaioltza auzoa
Lezama (Bizkaia)

Telf: 94 455 65 11

**CONSTRUCCIONES
LANDETANE, S.L.**



**ANDER ETXEBARRIA
MIKEL ETXEBARRIA**

Tfno. eta fax: 94 455 65 82
607 54 77 67
607 23 99 42

Garaioltza auzoa, 142
48106 LEZAMA
Bizkaia



Remirez Instalaciones S.L.

ENPRESA INSTALATZAILER:
BEROGAILUA, GASA ETA URA

Iturrikotea, 3
48195 LARRABETZU (Bizkaia)
Tel/Fax 94 455 82 96 / 606 39 33 46 - E-mail: reinsta@euskalnet.net



LARRABETZU AURRERA
Euskal Herria AURRERA

*Josu, Jose Migel
Larrabetzu libre*

ANDRA MARI KALEA - TEL.: 94 455 84 64



**inmobiliaria
bilbao**

Aralar kalea, 2 behea
Tfno./Fax: 94 454 10 94
Mobila: 620 223 200

48160 DERIO
(Bizkaia)



**BERRRESONXKA
S.L.**

LARRABETZUko BATZOKIA
TABERNA - JATETXEA

KSBATZUONKAREN ENPRENTZA 3
48195 - LARRABETZU (BIZKAI)

TELF. 94 455 71 88



eleizalde
kafetegia

Lainomendi, 7
(Elizaren aurrean)

48160 DERIO (Bizkaia)
Telefonoa: 94 454 52 88

ARTXANDAKO GOLF ESKOLA

Prezio bereziak, enpresentzako ikastaroetan
Prezio bereziak, ume eta nagusientzako ikastaroetan



Eman izena eta gozatu Euskadiko golf eskolako instalaziorik onenekin!!!

Telefonoa: 94 645 99 27



Ni Aikor!laguna naiz, eta zu?

Aikor! aldizkariak bost urte beteko ditu laster, eta ibilbide horretan hainbat helburu lortu ditu: bertako informazioa euskaraz txorierritar euskaldun gehienei helaraztea, erdaldun asko eta asko euskarara eta euskaldun mundura hurbiltzea, txorierritarrak sarri protagonista bihurtzea, publizitaterako euskarri euskalduna eta egokia izatea... Baina badu, hala ere, gabezia bat, beste tokiko aldizkari batzuek lortu dutena, hau da, ez du irakurleon, herriarrioren laguntza ekonomikorik. Hori dela eta, abian jarri dugu Aikor!lagun kanpaina, zeure eta euskaltzale askoren

laguntza jasotzeko.

Kanpainaren helburuak ez dira ekonomikoak soilik, badugu-eta beste helburu nagusi bat, Txorierriko euskaltzaleon sare bat osatzea alegia.

Zuk ere sare horren partaide izan nahi baduzu, bide hauek dituzu: bete **Aikor!lagun fitxa** eta postaz bidali; e-mail bat idatzi **aikortxori@yahoo.es** helbidera; **94 452 34 47** telefonora deitu edo zure herriko **euskara elkarteko kideren** bati esan.

Ondorengo orrialdeotan topatuko dituzun txorierritarrak Aikor!lagunak dira dagoeneko. Hurrengoa ZEU.



Joseba Butron, irakaslea eta euskaltzain urgazlea (**Lezama**). Bakoitzak apur bat, danon artean asko. Geure alde egitea da, gainera, geu gara-eta euskera.



Jasone Astola, euskara irakaslea (**Lezama**). Hizkuntza guztiek behar dituzte hurbileko berriak eta era guztietako iritzizak argitaratuko dituzten komunikabideak, are gehiago hain hiztun gutxi dituen euskarak. Hizkuntza bat duenak altxor bat du, babes dezagun geurea.



Marikarmen, Grisson kafetegia (**Lezama**). AIKOR!en eta tabernan be euskeraz.



AIKOR!lagun

Egin zaitez euskararen lagun!

Izen-abizenak _____

Helbidea _____

Telefonia _____ e-posta _____

Bankuko 20 zenbakiak _____

Urteko kuota: 30 euro _____ Beste kopuru bat _____

Orri hau helbide honetara bidali: Aikor! Aresti kalea 2, B + 48 170, Zamudio

Zure laguntzagaz aldizkaria hobetuko dugu!



Torrelarragoiti ind. z/g 48170 Zamudio
Telefonos: 944 977 177 - Faxs: 944 522 619



Telefona: 94 452 20 48
plaza Lehendakaria plaza, 3



Gestión
Zamudio

Title: 94 252 21 41. Entry: 94 252 21 42

www.pedagogica.unimil.it/psicologia/psicologia/psicologia.htm



Tainbo Kalea, 9
48170 TAMUDDO (Birtaia)

Tel. 94 452 26 75



Teknologi Parkes - Erakuntza, 200
48170 ZAMUDIO - (BIZKAIA)
Telefonoa: 94 403 69 00
Faxa: 94 403 69 01
e-mail: hotel@aretxarte.com
e-mail: reservas@aretxarte.com
www.aretxarte.com

Balgerri

Egyszerű mentek
Menu barozok
Egyszerű barozok

TORILLAS/COLOS INDUSTRIALES, S. S. de C.V. - 48170 ZAMUDIO
TELÉFONO: 94 452 30 53 • FAX: 94 452 31 76

IÑIGO BARCENA

Idelzserotza orokorra




Amsterdamboulevard, H - 1 wijk
ZAMUDIO
Tel/Fax: 04 452 29 10
Mobiel: 065 60 10 12

LAUSOJA-SERVISSIN KOKOONLASKETTU ETU
 KÄYNNÄTÄÄ SINUN JA TUNNUSKODIN KÄYNNÄTÄÄ
 KÄYNNÄTÄÄ SINUN KÄYNNÄTÄÄ

+48 1 26 453 15

0271-2382/2000/0000-0000\$05.00/0

© 2013 Pearson Education, Inc. or its affiliate(s). All rights reserved.



Neres Pedrosa Siqueira
0000 CANADARA ZAMUDIO 0000

已知函数 $f(x) = x^2 - 2x + 1$ ，求 $f(3)$ 的值。

Trichostema 4/24 12: 12
 6/27 24 12: 12
 8/22 24 4/24 12: 12

Haperialitateak
 gozariak
 plater konfusiak
 pintxoak

GIRO ONA

Solrbc, 2 DERN
TEL-54 684533

Aislamientos Deriva



Mungialde Etorbidea, 4
48160 DERIO (BIZKAIA)
Tel.: 670 497 928
Fax: 944 541 121

ITA AKUSTINGDAK

**ASADOR
TRAMENDI**

**EZKONTZAK
BATAIOAK
BANKETEA
JAUNARTZEAK**

Arteaga auzoa, 119
Tifnoa.: 94 452 11 58
ZAMUDIO

aldckone
hortz klinika
Tel : 94 454 15 87

Anuska Prieto Aguilar
Odontóloga

Linie 7, beinahe
49160 DERIO (Bibbala)

- Tepusallitla quatlina zontlo baka balcan
- Acmabotus dion

- Espezialitatea: unek

RESTAURANTE
JATETXE
AYRREGOITI



Tel.: Tel. 94 453 24 40 / LUGOCETI TORREDA, 37 / 48180 LOU-Salme
E-mail: g-maggioli@terra.es // www.rostrosnuevosmaggioli.com



Belen Gana, AEK-ko Txepetxaren euskaltegiaren zuzendaria (Loiu). Elkarren berri izateko eta kulturaren danborila eragiteko dogun AIKOR! aldizkaria. Denon artean hobetu eta eustea da txorierritar jatorren erronka.



Yolanda Ugarte, Pentagrama Kultur Elkartea-Soinuak-ko zuzendaria (Sondika). Euskara bultzatzeaz gainera, Txorierriko albisteak eta pertsonaiak hurbiltzen dizkigulako.



Etxahun Lekue, bertsolaria (Larrabetzu). Herri mugimenduaren ispilua izan daiten.



Jon Llona, (Zamudio). Euskara lan munduan eta teknologia barrietan sendotu behar dogu (Aurrera AIKOR!, Aikor.com, Lan Txorierriaz...)



Iñaki Dobaran, Euskadiko Futbol Federazioaren presidentea (Zamudio). Euskaraz irakurtzeko erraztasun haundirik ez daukagunontzat lagungarria delako.



Jabi Aretxabaleta, Bizkaiko Txakolinegileen Elkartearen presidentea (Zamudio). Euskeraren alde eta txorierritarrak alkarren artean hobeto ezagutzeko, egiten dauan lanagaitik eta gure sektorea bultzatzen lagundu deuskulako.



Imanol Ormaza, Derio Ipar-Alde abesbatzako zuzendaria. Aikor!lagun eginda, aldizkaria ez ezik euskal kultura eta kantak ere babesten ditugu.




Leire Begoña, Leire Begoña ileapaindegikoa (Derio). Gure hizkuntza modan egon behar delako beti.




Alaitz Zabala, Laiñomendi dantza taldeko kidea (Derio). Txorierriko euskaldunok batzen gaituen aldizkaria delako.



Jon Aroztegi, mendizalea (Zamudio). AIKOR! gure al-boan egon da behar izan dugunean.



Nestor Arregi, ikaslea (Zamudio). Euskaldun jaio nintzen, euskaldun hazi, euskara galdu barik nahi dot nik bizi.



Iñaki Zarate, txakolinegilea (Lezama). Txakolina eta AIKOR! geure-geureak, danonak.



Bego eta Marikarmen, Lezamako Daño-beitia ja-nari denda. AIKOR! egaz betekadea egiten dogu hile-ro.



Irene Danobeitia, Loiuko alkateordea. Aikor! aldizkariak Txorierriko euskaldunei inguruko berriak euskaraz ezagu-tzeko aukera eskaintzen die. Eta ez bakarrik udaletatik sortutako berriak, baizik eta talde desberdinenak-eta ere bai. Guk ezagutu gabe gure artean ditugun bitxitasunak eta pertsonaia bereziei buruzko zenbait berri ere bertan aurkitzen ditugu. Txorierriko bizitza bere osotasunean eskaintzen digu.

GAZTELEKU TABERNA

LARRABETZU

Andra Mari, 6 - Tel 94 455 88 97

RAPA

MAYORISTAS INFORMATICOS

EMPRESARAKO INFORMATIKA
SAREEN, MANTENIMENDUA
SERBITZU TEKNIKOA

Pol. Ind. Torrebaragatillo Pol. BA Bloque 1 Nave 3
48170 Zamudio - Tfno: 944521544

BITXITIGIA - TXORI-DENDA

Ruben

Lehenplazari Leizola Plaza, 5 - Tel.: 94 453 14 49
Zamudio (Bizkaia)

HOTELA

JATETXEA

XPTEK-LOTE

Other Gastronomia

Avenida Arriaga, 83
48170 ZAMUDIO (BIZKAIA)
Telefono 94-452 61 37
Fax 94 455 17 17
E-mail: hotel_lote@xptek.com

Geas Bizkaia

abokatuak, leizola, fiskal eta kontableak

Astiaz, 4 Behe
48160 DEFRIO

Tel: 94 453 66 77
Fax: 94 453 61 33

ERRRKA

ETXEA

Egunero menua, lasterburuko menu hartzia, karta, enpresen bazkariak, jantzeriak, familiar bazkariak

Artcaga, 80
Zamudio 48170 (Bizkaia)
Tfno.: 94 452 14 19
Fax: 94 452 26 29

HIZKUNTZAK:
HEZKETA, MANTENIMENDUA
ALEMANERAK, ESPANOLAK

WASGARIK

INFORMATIKA

ENPRESTARAKO ESKOLA

Ikasleak ikasteko programak

ALA

SECOND LANGUAGE ACQUISITION

Txori-erriko Txorierriko Ikasteko Eskola
Txorierriko Ikasteko Eskola
Txorierriko Ikasteko Eskola

S.A.T. LEGY

LEZAMA

Goldolaza Auzoa, 36
48196 LEZAMA - Bizkaia
Telf.: 94 455 61 98
Fax: 94 455 64 17



Juantxu Bilbao, Lauroetako jai batzordeko kidea (Loiu). Txorierrri, euskera eta AIKOR! Hona hemen (ala aikemen?) hirukote ederra, alkarri ondo lotuta. AIKOR!ek hilero egiten gaitu lagun txorierritarrok. Orain emon deio-gun gure laguntza. Aikor! lagunokaz batera urte askotan bizi izan daiteen.




Alberto García, Elaiak Txistu Taldearen kidea (Sondika). Euskara ikasten gabiltzanor laguntzen digulako.



Gotzon Barandiaran, Arrekikili euskera alkarlearen kidea (Larrabetzu). Eritxi guztiak batuko dituen euske-razko gure komunikabide bakarra dalako.



Gorka Mugarza, Arrekikili euskera alkarlearen ki-dea (Larrabetzu). Txorierrin euskerak behar leuen tokira-ko, pausu bat.




Angel Garitano "Ondarru", Athleticceko 2. entrena-tzailea (Derio). Euskaldun guztiontzat, txorierritar guz-tiontzat. Zelan, ba, ez dogu Aikor! lagunduko? Poztekoa da zuen lana.



Iñaki Beitia, kalitate-kontrol kudeatzailea (Lauroeta-Loiu). Badira urte batzuk AIKOR! aldizkariari esker Txo-rierrriko gorabeherak gure euskera ederrean daukaguzala. Aukera hau ezin dogu galdu; gehiago esango neuke: indar-tu egin behar dogu. Horregaitik danon laguntza ondo be ondo etorriko jaku.



Egoitz Arruza, Erandio Goikoa, Derio, Zamudio, Lezama eta Larrabetzuko abadea. Euskerea Txorierrriko lehena eta geroa dalako.



Juan Luis Goikoetxea, irakaslea eta euskaltzain ur-gazlea (Derio). AIKOR! baikorra delako, etorkizun bikai-neko gaztea.



Saionara Barrena, irakaslea (Larrabetzu). Berton egina eta bertokoek irakurtzeko atsegina.

ESTILISTA
EVA ARDINES

WELLA-MITZELN
FARFALLA-TRUKATZEN

AmAr

Aukerak - C/Arriaga 14/15-16/17-18/19
Larrea 1000 - 48170 Zamudio

Urtze Plaza, 1 - Bidea 48170 Zamudio
Telefonoa: 94 452 84 16 (Aurreko 14000)

BOGOSKIRIAK DE HANDE

WIKIPEDIA
CRUCIARIO
FOTOGRAFIA
WIKIPEDIA WIKIPEDIA
AGENDA TRUKATZEN
FOTOGRAFIA TRUKATZEN
WIKIPEDIA TRUKATZEN

Ortu Ondo, S.A.

U/Agintzailean P/Agintzailean 11. Inb. 11-11
Tlfonoa: 94 452 15 90 - Fax: 94 452 36 90
48170 ZAMUDIO
e-mail: ortuondo@ortuondo.es

ZAMUDIO MOTOR IDENTICA

94 452 1616
94 452 1624

Pol. Torrelagoiti
Pab. 6, Bloque 3
48170 ZAMUDIO
BIZKAIA

ESPEZIALITATEA:
TXAPA ETA PINTURA

Hobeto datozkizun hilabeteei begira...

sasoian egon
BODY CENTERREN

**eta goza ezazu
seihilabeteko
programaz
250
euroren truke***

Eskaintza hau 2007ko
urtarrilaren 2tik
31ra arte izango da



BODY CENTER BILBAO Larrauri, 1 - A Eraikina
(Seminarioko ezker aldean) 48160 DERIO (Bizkaia)

*Dena barne (Yoga, Pilates, SPA izan ezik)

Tel.: 94 454 15 82

www.bodycenterbilbao.com



Lezamako eskola. Geure arteko gauzak jakiteko, geuk be lagunduko deutsogu.



Ixone Zubieta, Tximintx euskera alkartearen presidentea (Derio). AIKOR! egiten dogunok jakiteko zenbat jente dekogun atzetik.



Jose Luis Larrea, CD Sondikako presidentea. Kirolak ere euskararen alde egin behar duelako.



Jesus Mari Gorritxategi "Jerry", Loiu eta Sondikako abadea. Denok dakigu gure identitatearen sustraian euskera dagoala. Denok dakigu, Txorierriko elizatik hasita, zelango egoeratan bizi dan gure kulturaren ezaugarriak garrantzitsuena: Euskera. Txalogarria da Txorierrin AIKOR!lek egiten duan lana euskararen alde.



Zarate eta Arrieta familia (Lezama). Danon artean egin behar dogulako.



Aitor Coteron, telebistan ibilitakoa (Erandio Goikoa). Erandiotik Larrabetzura, AIKOR!ek gure bailarako susterrak mantentzen laguntzen daualako, eta horren seinale dalako.



Zalao Jaka, kazetaria (Larrabetzu). Egin deiotsegun leku batzen gaituenari: Bai euskereari!



Aitor Larrazabal, Athleticeko jokalaria ohia (Loiu). Denon artean jarraitu eta indartu egin behar dugu gure hizkuntza. Aikor! eta kirola beti elkarrekin eta aurrera.



Toti Mtz de Lezea, idazlea (Larrabetzu). Euskarari laguntzeko, hitz egin bai, baina ekin.

M^{re} Jesús Inchausti Gallarzagaitia
ESTANCO

Mungialde Etorbidea, 12,
48160 DERIO (Bizkaia)

Tel. 94 454 15 41



ETORKI TABERNA

Eguneroko menua

Asteburuetan menu bereziak

Andra Mari Kalea, 1
Tel.: 94 455 81 05

48193 LARRADETZU
(Bizkaia)



ALBAITARITZA

SONDIKA

LARRIALDIK 24 ORDUAK

☎ 607 85 6039
☎ 94 453 5208

Mitxine Bidea, 3
48150 SONDIKA



Cafeteria



Sandwichak

Hamburgesak

Plater konbinatuak

Gosariak

Urdaiazpiko iberikoa

☎ 94 454 3599

Gernikako Arbola, 4 • 48160 DERIO

ZIRIKADA
JATETXE

☎ 94 454 5045

Gaztelumendi Plaza, 1
48160 DERIO



ARANTZA AMONDARAIN LASA
GINEKOLOGOA

Txoriherri Etorbidea 9, 1. 123
aramondarain@guadalupe.net

48160-DERIO
Txikia/Fax: 94 454 44 98

Produkturik onenak
erabiltzen ditugu
onenak izateko

Oso handiko marketako
produktuak osatzen
dituzte gure menuak

Gainera, inork baino hobeto zaintzen ditugu
akela, arraina, txakal eta harrak...
Horiek guztiek ere lehen aukerak
dituzten markarik gabeko produktuak dira

Zureak
Zure familiariztat

Elaborado de
Guadalupe Laso
y Compañía

gastro
nomia
baska

☎ 94 452 00 00

www.gastrobaska.com



Kitchen sukaldeak

Txoriherri Etorbidea 9
1. etorria Arreaga
48160 DERIO (Bizkaia)
Tel. 94 454 85 00
Fax: 94 454 85 01
kitchen@sukaldeak.com

ARMATZURAK, SUKALDE ETORBIEN, ETORBIEN
SUKALDEAK, SUKALDEAK
SUKALDEAK, SUKALDEAK



Zure sukaldean %10ko DESKONTUA

EXAMENETU GURE SUKALDEAK ZURE SUKALDEAN ZURE SUKALDEAN

SUSTATZEN DUGU 2006.12.31 ARTE BAI DU

Equiberru on!

ESKaintza 2008ko Abenduaren 23ra arte Baliagarria



11'99 €

1.995 Pzta.

ARKUMEA BURU EDO
BARRUKIEKIN
ERDIA EDO OSOA
KG.



2'49 €

414 Pzta.

FONCALADA
ERRIOXAKO ARDO
BELTZA, 75 ZL. BOT.



8'50 €

1.414 Pzta.

EL MAR OTARRAINXKA
20/30 KAXA, KG.



3'99 €

664 Pzta.

GRAN BARON
BRUT NATURE KABA
75 ZL. BOT.

Super BM

TXORIERRI ETORBIDEA, 9 - DERIO

ESKaintza 2007ko Urtarrilaren 9ra arte Baliagarria



"Ni neuk argi daukat."

*"Operadore mugikor independente bihurtu da Euskaltel.
Kobertura askoz hobea eskeintzeko besteak beste
aldaketa haundiak egin ditu. Ni neuk argi daukat."*

Julio

Denontzat da telefonía mugikor berria.

“Askoz hobeto sentitzen naiz korrika egiten dudanean”

Zelan hasi zinen korrika egiten?

Betidanik egin dut kirola. Hogei urtetik gora daramat korrika egiten. Hasi nintze-nean oso arraroa zen: imajina ezazu neska bat bide bazterretatik korrika egiten.... Beno, mutilak ikustea ere zaila zen, baina neska baten bat askoz zailago. Betiko komentarioak entzun behar ditut, baina norberari gustatuz gero, aurrera!

Korrikaz aparte, beste kirolaren bat egin duzu?

Urteetan triatloia eta gehienbat duatloia egiten ibili naiz. Oso gustuko ditut. Triatloian igeri, bizikletaz ibili eta korrika egiten da; duatloian, berriz, bizikletaz eta oinez egiten da.

Eta orain ez dituzu egiten, ala?

Ez. Bizikletan entrenatzeari utzi nion, ordu asko behar direlako. Eta neguan, esate baterako, ezinezkoa da goizez egiten ez baduzu. Bizikletaz joateko gogoa dudanean paseotxo bat ematen dut, baina ez dut txapelketetan erabiltzen.

Kirol gogorrak, ezta?

Prestatu egin behar duzu, baina entrenamendu kontua besterik ez da. Horrezaz aparte, zer helburua daukazu ere badu zerikusi handia, hau da, zure asmoa lasterketa amaitzea edota aurreko denbora apur bat hobetzea bada, ez da hainbestera-ko. Nik ez dut oso serio hartzen. Nire helburu bakarra osasuntsu egotea eta gustuko dudana ekintza egitea da.

Nolako entrenamendua egiten duzu urtean zehar?

Asteko egun gehienetan ateratzen naiz entrenatzera. Normalean ordu bete ematen dut korrika egiten.

Nolako denboraldia egiten duzu?

Krosseko denboraldia orain hasiko da, eta amaitzen denean herri lasterketetan parte hartuko dut. Gehienak asfaltoaren gainean egiten dira, eta ia asteburu guztietan antolatzen dituzte; beraz, beti dago nora joan. Bizkaia mailan mugitzen naiz gehienbat, eta noizbehinka kanpora joaten naiz. Lehen, Espainiako Kluben txapelketa joaten nintzen Ortuella taldearekin, baina gaur egun bertotik nabil.

Nondik entrenatzen duzu?

Batzuetan menditik. Oso ibilbide polita da, baina egunez egin behar da. Bestela, asfaltoan egiten dut Zamudioko Parke Teknologikotik edo bertoko errepideetatik. Baina trafikoa arriskutsua da. Hala ere,

Betidanik korrika egin du, eta denboraren poderioz Jone Etxebarria larrabetzuarrak lasterketak irabazi ditu. Horren lekuko dugu etxean duen garaikurrez betetako gela, hain zuzen ere. Korrika egitea zaletasuna besterik ez da, baina primeran egiten du Jonek. Bai noski!

Testua eta argazkiak: Gaizka Eguskiza



Hiru aldiz irabazi du Sopelako lasterketa nudista

Ia asteburuero joaten da Jone Etxebarria lasterketa baten edo bestean parte hartzera Bizkaia osoan zehar. Aspaldi honetan udan ere badu ezinbesteko hitzordua: Sopelako lasterketa nudista, alegia. Hiru aldiz irabazi du eta ez da kirola eta aldarrikapena uztartzen dituen bakarra. "Beste korrikaldi batzuek euskara edo euskal selekzioa aldarrikatzen dituzten bitartean, Euskal Naturista Elkartek nudismoaren alde antolatzen du Sopelakoa", azaldu du Jonek.

Argi dago larrabetzuarrak biluzik egoteko arazorik ez duela, baina hasie-

ran ez zen erraza izan. "Nudismoaren kontua naturaltasunez ikusten dut. Nik ez daukat hondartzara joateko ohiturarik. Horregatik, hasiera baten erreparatu apur bat eman zidan, baina gero jendea biluzik hain lasai eta natural ikusten duzu, ezen berehala sartzen zarela giro horretan".

Hala ere, gizarteari kostatzen zaio biluztasuna onartzea eta "oraindik urteak pasatu beharko dira", Joneren hitzetan. "Gure kulturean —erlijioak zerikusi handia izango du, ziurrenik— beti izan da tabua gorputza arroparik gabe erakus-

"Ordaindu behar izatea oztopoa da kirola egiteko"

"Ahal dudan bitartean, ez diot korrika egiteari utziko"

Nafarroan dituzten pistak ez ditugunez, moldatu egin behar gara. Erriberan-eta lurrezko pistetako kilometroak eta kilometroak dituzte. Komenigarriagoa da lurlean korrika egitea asfaltoan egitea baino, bigunagoa delako eta zauri gutxiago baitaude.

Zer ematen dizu korrika egiteak?

Askoz hobeto sentitzen naiz korrika egiten dudanean bai psikologikoki, bai fisikoki. Korrika egin, dutxa bat hartu eta gero gosalduta edo azkalduta baino sententzia hobetik ez dago. Beste alde batetik, beste korrikalariarekin harremanak lantzen dira eta jende asko ezagutzeko aukera dago.

Atletismoan mutilak neskak baino eza-gunagoak dira. Hala ere, Euskal Herrian kontrakoa gertatzen da: Amaia Piedra, Naroa Agirre, Virginia Berasategi...

Ni ez naiz horien mailako atleta, ez pentsa! Ohituta gaude mutilak kirola egiten ikusten, baina oso arraroa egiten zaigu neskak egiten dugunean. Gero eta neska gehiago dago, duda barik, eta argi dago bultzatu egin behar dela.

Zelango hornikuntza dago Txorierrin korrika egiteko orduan?

Erreztasunik ez dago. Dena ordaindu behar dugu gure poltsikotik: kiroldegia, bidaia, izen-emateak... Jende askok ezin du sinestu. Batzuek esaten didate: "Zuri ordaindu beharrean, zeuk ordaintzen

tea. Eta ikusgai daudenak beti politikak dira. Ematen du pertsona bat, kanonen artean ez badago, "itsusia" dela eta ezin duela gorputza erakutsi. Eta Sopelako lasterketan guztiz kontrakoa ikusten da".

Giroa bitxia eta ezberdina

Korrikalarien artean dagoen "giroa" goraipatu du larrabetzukoak. Izan ere, "jende mota bi dago: alde batetik, atletak eta beste alde batetik nudistak. Horregatik, giroa oso bitxia eta ezberdina da. Ez dauka zerikusirik beste lasterketetan dagoenarekin eta izugarri gustatzen zait". Gutxien gustuko dituenak, ordea, "begiluzeak eta arean korrika egitea, egonkortasunik ez baitago".

duzu, ala? ". Eta egin nahi baduzu, onartu behar da. Nire ustez, kiroldegia dohainekoak izan beharko lirateke. Ordaindu behar izatea oztopoa da kirola egiteko.

Eta zein da klubaren betebeharra, ba?

Korrikalaria apur bat babestuta egoteko balio du klubak. Klubean egoteak, gure mailan behintzat, ez dauka abantail handirik.

43 urte izanda, noiz arte espero duzu lasterketean parte hartzea?

Egia esan, nahiko jende nagusi dago korrika egiten. Batzuetan ezin da sinistu! Gurekin korrika egiten duen emakume batek 62 urte-edo ditu. Pilo bat entrenatzen du eta oso ondo dabil. Adin horrekin abiadura galtzen da, baina fondoa eta eskarmen-tua dituzu. Helburuaren arabera ondo dago: ondo pasatu eta kirola egin nahi baduzu, inongo asmorik gabe, nahikoa da. Eta nik, ahal dudan bitartean, ez dut utziko.



euskarak
behar gaitu!

^{aek}
heldu

izan zaitez
korrika
laguntzailea

12 euroren
truke

www.korrika.org

Euskararekin bat, Larrabetzun

Argazkiak: Ines Serrao eta Gaizka Eguskiza



Euskararen Nazioarteko Eguna 1949. urteko abenduaren 3an ospatu zen lehenengo aldiz. Handik hona, munduko euskaltzaleek urtero-urtero izan dute hitzordua euskararekin egun horretan. Txorierritarrok Larrabetzun ospatu dugu aurtengo Euskararen Eguna. Ekitaldiak abenduaren 1etik 5era bitartean egin dira, eta haien artean, umeentzako antzerkia, pilota partidak eta Benito Lertxundiren kontzertua aipatzekoak dira.



AIKOR! aldizkarian
publizitatea jarri gura baduzu
deitu telefono honetara:
94 452 34 47
edo e-mail bat bidali
aikortxori@yahoo.es

Karlos
pinturak

PAPERA
ETA
PINTURA
ORO HAR

☎ 94 455 80 59
☎ 94 433 63 83
☎ 94 671 10 15

Ardleta, 10 (Asua errepidea)
48195 LARRABETZU (Bizkaia)

Euskararen Nazioarteko Egunerako Benito Lertxundik egindako abestia



Euskara giza ondarea da

Euskara giza ondarea da: komunikazio

eta batasunerako tresna.

Elkar ulertu eta giza hel-buru gorenera heltzeko beharrezko baliabidea.

Hizkuntzak leuntzen du animalia eta gizon bilakatzen.

Berak bideratzen elkar laguntza giza mailan gauzatzeko.

Zentzu horretan hedatzen da herri bakoitzaren beharretara.

Hizkuntza ispilu leiala da, non kondairan zehar, herri baten baldintza sozialak isladatzen diren.

Hizkuntzak jakinarazten dio belaunaldi bakoitzari oinarritzko kultura guztia.

Bere hizkuntzarekin hautsi duen herriak tradizioa du errausten eta arina peltzen.

Hizkuntzak bere baitan, herri baten mundua ulertzeko era gordetzen du, herriarrek hitzegiten dutenean.

Euskara, gure hizkuntza, giza ondarea da.


SONDIKAKO KULTUR ETXEA
 Cestero kalea, 1 (elizarean atzean)
 Telefonoa 94.453.64.13

ANTZERKIA

Urtarrilaren 5ean, ostiralean
 11:30etan

**TXIRRI, MIRRI ETA
 TXIRIBITON - JUNIOR**

Haurak: 3 €
 Nagusiak: 5 €

guztira 100.000 €
 =
 erosi da erosiak
 biki nahi dutenak
 kutsatzen dituzten
 beldurak 944 530 530
 eta las lagaratu da
 autoerabilerak da biki
 eta gero 944 530 530
bbk =
 txirribitogin
 ordu bat lehenago

Urtarrilaren 12an, asteartean
 20:00etan

**TODO
 SHAKESPEARE
 O CASI**

Itxalo productions
 (helduentzat gaztekeraz)
 Sarrera: 6 €

ZINEA

Igandero, 18:00etan

Prezioak:

12 urtera arte : 1 €
 nagusiak : 2 €

Urtarrilaren 2a:
**CARIÑO ESTOY
 HECHO UN PERRO**

Urtarrilaren 4a:
EL CASTILLO AMBULANTE

Urtarrilaren 7a:
JULIETA FOKATXO XELEBREA

Urtarrilaren 14a:
**LA INCREIBLE PERO
 CIERTA HISTORIA DE
 CAPERUCITA ROJA**

Urtarrilaren 21a:
VAYA VACACIONES

Urtarrilaren 28a:
**ANTBULLY: BIENVENIDO
 AL HORMIGUERO**

Behar du: Elkarrekin gurea da Euskararen
 Kultura Arloko Gurea Etxeak da
 (T: 94.453.51.71)



Iñaki 94 455 65 08
Jabi 94 452 14 31

Magalarte Txakolina

ARETXABALETA LUGO ETX. BIZKAIATZA

75 cl.
10,75 % vol.

Bizkaiko Txakolina
Denominación de Origen

Enviado a: Boka-ko Txakolina
Lote: 1-45

-Fiskala
-Laborala
-Kontablea

Aholkularitza

LAGUNKOR

Aretxalde, 68
Telefonoa: 94 455 65 38
48196 LEZAMA (Bizkaia)

GALAISSA

Estetika eta lispaindegia
94 453 04 85 - 94 471 10 51

Sabino Arana 1-3. SONDIKA

Etengabeko ordutegia

Baserritarren Alkartea
Lezama S. Coop.

Aretxalde, 21 BIS
48196 LEZAMA
☎ 94 455 60 16
e-mail: lezama@fisc.org
Itakidutak: 144

Pentsu naturalak

ABENDUAREN 30ean
Arratsaldeko 18:30ean
DERIOKO KIROLDEGIAN

EUSKAL DANTZAK

ESKUALDEKO
DANTZA TALDEAK

Laguntzailea: DERIOKO UDALA
Antolatzailea: LAINOMENDI TALDEA

Lainomendi

Zorionak

AVR TENETXE S.A.

MAKINARIAREN SALMENTA ETA KONPOSAKETA
NEKAZARITZA - LOREZAINITZA

ERAKUSKETA ETA TAILERRA
Aretxalde, 105
Tel.: 94 455 62 66
Fax: 94 455 65 66
48196 LEZAMA (Bizkaia)

Autonomía, 57
Tel.: 94 427 29 18
Fax: 94 427 29 18
48192 BILBAO

TXIMINTX

Bisitatu gure bloga
www.blogari.net/tximintx

Pintxotan, Esther Olabarrietarekin

Esther Olabarrieta lezamarra Station Wagon tabernako sukaldaria da, eta “Galdakaoko Barra Onena” saria lortu berri du. Esther duela 55 urte jaio zen Sugastibari baserrian. Ontzi proiektugintza ikasketak egin zituen eta lan horretan aritua da; hala ere, sukaldaritzan hasi zen, Josetxo Dañobeitia aitabitxiaren eskutik.

Testua eta argazkia: Maite Aranburu



Zer suposatu du sari horrek zuretzat?
Estimulua da, aurrera jarraitzeko. Oraindik gauza asko dago egiteko eta sortzeko.
Zer behar da gutizia horiek sortzeko?
Hasteko, ezagutza eduki behar da; baina benetan beharrezkoa dena gustua edukitzea da. Niretzat benetan atsegina da gauza berriak sortzea, zapore-nahasketak probatzea, testurekin jolastea... esperimentatzea.

Zelakoa izan behar du pintxo on batek?
Borobila, ardo on batek bezala. Oreka eta harmonia izan behar ditu; erakargarria izan behar da begi bistarako. Baina gauza guztien gainetik, goxoa izan behar da! Azken batean, bezeroarengandik “ummmm-a” lortu behar dugu.

Zein gomendatuko diguzu?
Eh!... Hori seme-alaben artean aukeratzeko eskatzen badizute bezala da. Denak ezberdinak dira, baina guztiak maite dituzu. Bertora etorri eta probatzea da onena.

Baduzu buruan zerbait berria, sortzeko?
Bai, laster Athleticeko emakumeei dedikatutako pintxoak jaioko da. Ikustekoa izango da... Armarria eta guzti edukiko du!

Noraino heldu nahi duzu pintxo munduan?

Ez dut helmuga konkreturik. Indarrak eta imajinazioa lagun ditudan bitartean lanean jarraituko dut.

*“Bezeroarengandik
“ummmm-a” lortu
behar dugu”*

“Txorierri” pintxoak

Estherrek hurrengo pintxo hau proposatzen digu, Gabonetan prestatzeko. Oso erreza omen da egiten; eta merkea, gainera.

Osagaiak:

- Egositako porru pote bat
- Arrautza bi

- Sei ogi-tostada
- 100 g. ahate-pate
- Patata-pure deshidratatuko poltsa bat
- Roquefort gazta tako bat
- esne-gain likidoa

Prestatzeko era:

Ogi tostadak ebaki eta labean txigortu. Tostada bakoitzaren gainean ahate-pate xerra fin bat jarri. Beste alde batetik, porruei ura kendu eta erditik ebaki (8 cm luzera izan behar dute gutxi gorabehera). Porruek irinetik eta arrautzatik pasa-

tu, eta ostean, patata-pure deshidratatutik. Olio berotan frijitu (asko belztu barik), sukaldeko paperean olioak kendu eta ogi gainean jarri, aspa itxura emanez. Gainetik roquefort saltsa botako dugu. Hori egiteko, hurrengo pausu hauei jarraitu behar diegu: zartagin batean esne-gaina eta roquefort zatia jarri eta horiek ondo nahastuko ditugu, saltsa murriztu arte. Saltsa pintxoaren gainetik botako dugu eta, halaber, perrexila txikituta edo tipulin zatitxoak erabil ditzakegu, dekoratzeko.

cianoplan s.a.
Elkarte Teknologikoa 105 z/b
48170 Zamudio
Tfnoak 944 20 97 91
944 20 97 87
<http://www.cianoplan.es>
global printers

- Inprimatze eta plano kopiak.
- Kartelak kolorez eta z/b.
- Digitalizazio eta bektorizazio, automatikoa eta lagundua.
- Fotokopiak kolorez eta z/b.
- Era desberdinetako koadernaketak.
- Plastifikazioak.
- Fax zerbitzua.

Bapo jan, baina tripakadak ekidinez

–Ospakizunen aurreko egunetan gomen-dagarria da barazkiak eta fruta jatea; urtsuak dira eta organismoa garbitzen lagunduko digute.

–Mahaira ateratzen diren jatekoak ez dira astunegiak izan behar. Arraina afarietan jatea komeni da, eta haragia, bazkarietan.

–Jatekoak prestatzeko erari dagokionez, jateko erreak egokiagoak dira frijituak baino.

–Edari alkoholdunak neurrian hartu behar dira. Kopa bi ardo edo kopa bat xanpaina edaten badira, ez da ezer gertatuko. Likoreekin, berriz, kontu handiagoz ibili behar da: edari azukredunak dira eta alkohol maila altua dute.

–Bazkariak eta afariak ez dira luzeegiak izan behar.

–Jatorduen ostean komeni da infusioren bat edatea.

–Ospakizuna amaitu ostean, gozokiak (polboroiak, turroia...) jaten jarraitzeko tentazioa alboratu behar da.

–Bazkaldu ostean oso mesedegarriak izaten da paseoren bat ematea edo kalera ibiltzera irtetea, digestioa hobeto egiteko.

–Ez dugu Gabonetako “hondakinak” (gozokiak-eta) jaten jarraitu behar. Betiko dieta ahalik eta azkarren berrartu behar dugu.

–Gabonak eta ondorengo egunetan mesedegarria izaten da ur ugari dieta hartzea, organismoa garbitzeko.

Afariak lagunekin eta lankideekin, Gabon Gaua, Eguberriko bazkaria, Gabon Zaharra, polboroiak, gozokiak... Asko dira datozen egunotan gehiegikerietan ibiltzeko izango ditugun aitzakiak. Jatekoak kantidad handietan hartzeak ondorio hauek sor ditzake: bihotzerrea, erremina, nekea, haizeak, digestio astunak... Horrelakorik ez izateko, irizpide higieniko batzuei jarraitu baino ez dugu egin behar.



Testua: Aikor!

HARATEGIA + URDAITEGIA

VICTOR

Elaboración Artesana

Okela geuk produzitzen dugu; egiten ditugu odolosteak, txorizak, txistorrak, solomoak...

Plater aurrekozinatuak

Oñati Kalea n°4 • Tel. 94 453 16 17
48150 SONDIOVA (Bizkaia)

Consulting Sondiova, S.L.

9451 48886

Babin Askolizaga

Argumentos Allianz

609 475 746

Tel. 94 4531807 Mixtine, 6 Debea
Fax 94 4536027 48150 Sondiova-Bizkaia

pro audio

ESPECIALISTAS EN SONIDO

José Beltrán Galle

Kortxei atebidea 15
48150 Sondiova
Bizkaia tlf: 94 453 375

www.proaudio.es
jgalle@proaudio.es

- hi-fi
- navegación
- telefonía
- seguridad
- competición
- personalización

CORMORAN

Regalos y Complementos

Gernikako arbola, 2 • 48160 DERIO • Tel. 94 406 05 24

HORTZ - KLINIKA

Jasone Azurmendi Garai

Dakotas Plaza 1 • 1A
48100 ELKO

Teléfono: 944 543 705

Gantx

ORNETAKOAK - ORNETAKOAK

Gernikako Arbola Etorbidea, 2
(sarrera Goiko Kaletik)
Tfn: 94 454 38 13
48160 DERIO (Bizkaia)



Aikor!com

Aikor! aldizkaria orain urte bi eskegi zen sarean pdf formatuan. Baina Totoan Txorierriko Euskara Elkartearen Federazioak web orria apaindu eta beste bat egingo du urte akaburako. Aldizkaria **www.aikor.com** helbidean izango da, eta web orri horretan Interneteko zerbitzurik erabilgarrienak topatuko dituzue: atari pertsonalizatua, albistegi elektronikoa, erabiltzaile anitzeko agenda, blogak, argazkiak jaso eta biltzeko atala, argazki-bilduma sortzeko atala... Horrezaz gainera, aldizkarian agertzen diren artikulua, argazkiak eta

agenda eskainiko dira, eta bertoko abestien letrak eta Txorierriko zerbitzuen bilatzaileran egongo dira **www.aikor.com** helbidean.

Proiektuak txorierritarren topagune birtuala izatea du helburu, eta horregatik, guztiek izango dute web orrian parte hartzeko aukera. Blogak sortu ahaliko dituzue, gutunak eta albisteak idatzi, argazkiak bidali... Web orriaren arima erabiltzaileak izango dira, azken batean.

Testua eta argazkia: Ioritz Larrabeiti

100 gigabyte 1,8 hazbeteko disko gogor batean

Toshiba multinazionalak 1,8 hazbeteko disko gogor bat sortu berri du; disko gogor horrek 100 gigabyte informazioa gordetzeko ahalmena du. Hori garrantzi handiko aurrerapena da, oraingo diskoetan gehienez ere 80 gigabyte gorde baitaitezke. Disko gogor horiek PC Card baten tamainakoak dira eta musika-irakurgailuetan eta eskuko ordenadorerik arinetan erabili ohi dira.

Toshiba 2007ko urtarrilean hasiko da disko gogorrok era masiboan egiten. Baina erabiltzaileei ez dizkie zuzenean salduko; beste fabrikatzaile batzuei salduko dizkie, haiek euren produktuetan sar ditzaten. Horren ondorioz, aukera handiagoak dituzten musika irakurgailuak eta eskuko ordenagailuak merkaturatuko dira laster.

IDABA datu- basea, sarean

IVAP-HAEEko Itzultzaile Zerbitzu Ofizialak (IZO) IDABA aplikazioa ezarri du Interneten. Datu-base horrek hitzak eta terminoak kontsultatzeko eta itzultako testuak ikusteko aukera ematen du. Aplikazioan 400 testu baino gehiago biltzen dira eta horien artean hurrengo hauek dira aipatzekoak: Kode Zibila, Zigor Kodea, Espainiako Konstituzioa, Estatutua, 2000tik gaur egunera arteko Legebiltzarraren legeak, dekretuak, ebazpenak, planak eta abar.

 **edertaeun** 
Edertaeun eta Ongizate Zentroa

Edertaeun eta Ongizate Zentroa
Urbiz kalea 6. zenbakia, eskumako lorja
DERIO
Telefonoa: 94 464 515 / 3

 Inmobiliaria
ETORKI

Munglaide etorbidea, 4 bajo
Tel. 94 454 50 53
Móvil: 607 32 35 53 48160 DERIO

DERIO FRUTADENDA

Sollube, 8
Tfnoa: 605 77 12 62
DERIO

MARMOLGINTZA
GOYO
SUKALDE-GAINEKOAK
OBRAK ETA HILERRIAK

Ugaldeguren 1 ind., 18-B nahia
48160 DERIO (Bizkaia)

Tfnos.: 94 454 02 93 - Faxa: 94 454 50 63

CAFETERIA
IAZI

Eguneko menua eta
Menu berezia

JATA KALEA, 2 - Telefonoa 94 454 29 58 - DERRIO (Bilbao)

**Carnicería
Charcutería
IMAZ**

MUNIOIALDE ETORBIDEA,2
TLFMOA: 94 454 10 75


DERIO

*Eskeirik, asko
elortzeagaitik*



Gabon-kantak Derion eta Txorierrin

Tradizino eta musika zaleek badaukie non eta noiz gozatu Gabonetan



Jose Ramon Cadenato,
Ipar-Alde abesbatzaren
presidentea

Aurten XXIIgarrenez antolatu dabez Derioko Ipar-Alde korukoek geure-geureak bihurtu diran kantaldiak, Euskal Herriko eta mundu osoko Gabon kantakaz.

Jose Ramon Cadenato lehendakariak dinoskun legez, ez da bape erreza baina,

aurten be lortuko dabez euren helburuak: Txorierriko herri bakoitzean kantaldi bana eskaintzea, ahots zuri, lodi eta mistoz osotutako abesbatzak gonbidatuz. Larrabetzutik Loiuraino dagozan talde koralak ezizik, Bizkaiko beste dozena bat talde izango dira protagonista, herri bakoitzean eta egun diferentetan, hirunaka, eta Derion Errege egunean eta bezperan danak batera programatuta. Aurtengo nobedadeak bi izango dira,

Laudioko Abesbatzak parte hartuko daue-la eta urtero koru bakoitxari emoten jakon oroigarria: urtarilaren 6an jakingo dogu zein erakunderen eskutik datorren. Lehenengo kantaldia Sondikan izan zan abenduaren 17an, eta bertan Zamudiok Kamara Koralak, Txuma Olagüe Abesbatzak eta Coral Zornotzak parte hartu eben. Aikoemen gainontzeko egitaraua:

–**Lezama:** abenduaren 22an (20:00), Andra Mari elizan (Ahots Alai Abesbatza, Eki-dazu Abesbatza eta Otxote Danok Bat).

–**Larrabetzu:** abenduaren 23an (20:00), Andra Mari elizan (Garaizarko Matsorriak Abesbatza Ahots zuriak, Garaizarko Matsorriak Abesbatza Ahots lodiak eta Gaztelumendi Abesbatza).

–**Zamudio:** abenduaren 29an, (20:00) Martin Deuna elizan (Altzaga Abesbatza, Santa María Abesbatza eta Coral Santa Lucía).

–**Loiu:** abenduaren 30ean (20:00) Pedro Deuna elizan (Coro de Alumnas Andres Isasi, Andres Isasi Abesbatza eta Ipar-Alde Abesbatza)

–**Derio:** urtarilaren 5ean (19:30) eta 6an (12:30), Isidro Deuna elizan (koru guztiak).

Testua eta argazkia: Pospolin

ATARRABI

Erromenteri, 14 - 48150 Sondika
Tel. 944 531 928

ZURAS

Estetika eta masajea

Aita Patxi Ugaldé, 14 behea
Tel.: 94 456 72 01 - 48195 LARRABETZU (Bizkaia)

Maita gaitia! - Talde magikoak - Ordezko magikoak

IKASGELA AKADEMIA

• 100% ENGLISH • IELTS
• HEDUNTZA ESKOLA E.O.U.
• FIRST CERTIFICATE EXAM
• PROPRIETARIO Y DIRECTOR DE TALEN-TO
• PRIMARIA, ESO, BACHILLER

Iturrikoetxe Kalea, 7
48195 Larrabetzu
615 707 361

GOIKO TABERNA Bar-Restaurante
Emiliano y Juanjo

- Menu Diario y carta
- Comediones y bodas
- Amplias comodidades

R.º Gandoitza, 1 • Tfno. y fax 94 455 41 10 • 48196 LEZAMA - Bizkaia

yedra floristas

Mikel Zarate, 2 - 48150 Sondika - Bizkaia
Teléfono: 94 453 14 57 - yedraflorista@hotmail.com

TXORIERRI Inmobiliaria

ZURE GANDIK GERTUEN DOZUEN INMEDIATARIA
MIDIOKELARETZA - ZANAZIOA
ALOKATZEAK - ESKUALDATZEAK
SALERKUNTZAK
SEKURORIS HIRI BATZEN AGENTZIA

Arreajalea 2 50020000 - BILBAO
TEL: 94 470 12 02 - 94 470 15 11
E-mail: txori@txorierrinmobiliaria.com

Lezama: erlijio-arkitekturaren gainean

Oxangoiti familiak Lezamako Santa Maria eliza jaso zuen XIII. mendean. Hori eskualdeko eraikinik konplexuena da, izan ere, elizaren lehenengo nukleoa hainbat aldiz handitu egin da urteetan zehar. Nukleo hori gotikoa da, eta habearte nagusia ere (burualdea izan ezik) estilo arkitektoniko horretakoa da. Elizaren nukleoari arte errenazentistako kaperak gehitu zizkioten geroago; eta barroko aroan, beste kaperabat, dorrea, burualdea eta sakristia. Dorreak eta habearte nagusiaren gainean dagoen kupulako prismak ikuspegi dotorea erakusten dute kanpoaldetik, baita portale nagusiak ere. Horiek Martín de Larreak egin zituen.

Beste alde batetik, errepide hegalean Santo Kristoren ermita dago. Hori ermita handia eta inportantea da, dotorea eta ganga-formakoa. Era berean, gurutze-antzeko oina du eta ermita-santutxoaren kategoria barruan dago. Elizpe teilapeduna ere badu, eta hori harrizko zutabeen gainean dago. Francisco de Elorriagak ermita eraikin zuen XVII. mendearen bigarren erdialdean. Ermitaren ondoan harizti txiki bat dago, eta bertan kalbario bat dugu.

Baina Santo Kristorena ez da herriko ermitarik zaharrena, San Bizente eta San Andolinen ermitak lehenago egin ziren-eta. Horiek biak errenazentistak dira.

Iturria: Monumentos de Bizkaia




Santa Maria eliza



Kurtze ermita

"LAIA HOTEL MUSEOA"



Parke teknologikoa

Eraikina 806. Derio (Bizkaia)
Tel. 94 431 76 80
Fax 94 431 76 81
laia@saviat.net
www.saviat.net

Derion kokatuta, berau da hotel ekologiko bakarra energia berriztagarrien sistemei esker.

Hidromasajeaz hornitutako 38 gela ditu. Gainera, euskal gastronomia dastatu ahal izango duzu, antzinako errezetak zein sukaldaritzarik berritzaileena.

Spa zentroak relax zirkuitu hiru eskaintzen ditu: sauna, vaporiuma, jacuzzi eta dutxa inguratzailea.

**Aurreko
galderaren
erantzuna:**

Mayra Tomas

Irabazlea:
Gaizkane Salvador



LEHIAKETA

Asmatu galdera eta bi lagunentzako aste-buru batean gau bat pasa Laia Hotel Museon, gela bikoitza, buffet-gosaria eta Spa zirkuitua, barne. Hilabete honetako galdera zera da:

**Zenbat babes
ofizialeko etxebizitza
eraikiko dira Derion?**

Bidali erantzunak, hilaren 15a baino lehenago, telefonoz (944523447), e-mailez (aikor-txori@yahoo.es), edota postaz (**AIKOR!** aldizkaria, Aresti kalea 2, 48016, Zamudio).

(Saria Laiaren eskaintza duzue).

Sukaldaritza

Etxeko sukaldaritza

Gabon Gauerako afari osasuntsu bat

Berakatz zopa

Osagaiak (4 lagunentzat):

- 1/3 bezperako ogia (xerratan ebakita)
- 6 berakatz ale
- 4 piper siku
- 1/2 l. haragi-salda arina
- Arrautza 2
- Oliba olio apur bat
- Gatz lodia

Prestatzeko era:

Eltze baten olio zarrastada bat bota, eta bertan berakatzak gorrituko ditugu. Ogia gehitu, eta horrek olioaren xurgatzen duenean, salda eta piperrak gehituko ditugu. Ordu laurden baten su eztitan izango dugu irakiten. Piperrak txinotik pasatu eta arrautzak irabiatuko ditugu. Zopari gehituko dizkiogu. Dena ondo mugitu, eta gatz botako dugu.

Bisigua edo txitxarroa

Osagaiak:

- 1/2 kiloko bisigua
- Txitxarro bi (bakoitza 750 gramokoa)
- 4 berakatz ale



Maite Lekerika

- Pipermin gorri apur bat
- Ozpina apur bat
- Gatz

Prestatzeko era:

Arraina garbitu, eta erditik ebakiko dugu. Plantxa berotu ondoren, arrainari gatz botatu eta erretzen jarriko dugu (olio apur bat erabili). Kolorea hartzen duenean, buelta eman, eta beste aldetik egingo dugu. Berakatzak xaflatan ebaki eta piperminarekin batera frijituko ditugu. Erregostea epeldu eta gero, ozpina gehitu eta arrainari botako diogu.

Almibarra

Osagaiak:

- 10 urte-sagar
- 1/2 l. ardo
- 250 g. azukre
- Kanela-zotz bi

Prestatzeko era:

Sagarrak ordu erdi baten sartuko ditugu labera 200 gradutan. Atera eta epel daudenean, azala eta muskila kenduko ditugu kontuz-kontuz. Sagar bakoitza sei zatitan moztuko dugu. Ardoa, azukrea eta kanela eltze baten egosiko ditugu. Sagarrak gehitu eta su eztitan irakiten izango ditugu, sagarrak ardo kolorea hartu arte. Sagarrak epel zein hotz jan daitezke.



luz zamudio
ARGI APARATUAK

Nekazarri kalea, 4 (Iruja) Tel./Faxa 94 452 11 80
48170 Zamudio - Bizkaia

Espezialitateak:
egunko menu irekigunetan
burrunxi-pintxoak
enpresentzako sarru bereziak
plater konbinatuak

Lekendatari Agirre plaza, 2
48170 Zamudio
Tel.: 94 483 65 94

Crazy Guitar
Zamudio

Ne-apaindegia
M^a Antonia Llodio

Txarritiko etorbidea, 5
Tel.: 94 452 02 70

48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

OSKARBI
fotografoak

IAIN PIRIKALEA 3
48170 ZAMUDIO BIZKAIA
TEL: 944 520 014 / 607 400 678
E-mail: espezi@euskalnet.net

Vértigo
GONZALO PEREZ PASTOR
Zuzendari - Gerente

IKUSKIZUNEN ANTOLAKUNTZA ETA AHOKULARITZA

Ionelarragiti ind. 1^a B41
48170 ZAMUDIO (Bizkaia)
e-mail: gonzalo@vertigo.es
Tel. 94 452 22 59 - Fax 94 452 22 34

Amagoia Gezuraga

-LIBURUAK

GAZTEENTZAT

**Matias Txipirogoitia almirantearen
sudurreko gramoa**

A. Dueso

Metro bateko letrak

Julen Gaviria

Eta dena vatu beltz baten erruz

M.T. Aretzaga

Logurepeko munstroak

A. Egaña

Jack Telmo eta zirkulu magikoa

J.J. Fernández

NAGUSIENTZAT

Sokratikoek ere badute ama

Andoni Egaña.

Ezer baino lehen

Arantxa Iturbe

Italia, bizitza hizpide

Anjel Lertxundi

Rosamunda

Luis Daniel Izpizua

Jeu de Paume

Fito Rodriguez

MUSIKA



Memoria- ren mapa

Ruper

Ordorika

Antologia

Lourdes

Iriondo

Laster

berandu

da

Exit

DENBORĀ PASĀ

LETRAZOPA

A	P	G	A	E	D	A	R	R	A	P	A	S
Y	I	R	T	M	B	D	P	F	E	G	B	H
R	D	X	A	E	F	G	A	L	O	E	N	O
X	H	L	E	T	K	N	U	Ñ	U	I	H	Ñ
I	A	U	K	A	M	K	O	T	Z	A	O	J
B	E	A	F	S	T	J	N	D	I	B	J	X
F	D	T	A	L	X	O	R	G	H	O	E	K
U	A	L	S	T	R	L	A	J	Ñ	P	I	H
S	D	E	K	F	R	E	S	K	U	R	E	A
Z	E	Y	A	M	S	Y	Z	F	P	N	P	G
E	M	Z	U	X	B	E	R	J	I	S	Ñ	L
D	U	M	D	N	Y	O	N	Ñ	Z	M	R	Y

A word search grid containing the following letters:

A	R	T	O	A	G	S	I	R	L	H	F	R	E	G
R	X	A	K	O	D	A	N	E	A	X	P	Y		
A	Ñ	D	P	I	R	S	F	Z	D	F	S	E		
T	E	B	G	H	Y	U	B	K	I	H	X	I		
X	O	J	Y	P	A	E	E	M	E	T	O	B		
U	N	Ñ	D	Z	L	I	A	U	A	R	A	J		
R	O	M	B	R	S	J	H	F	Y	K	P	D		
R	N	L	X	E	T	N	S	X	A	G	E	Ñ		
E	K	N	T	L	K	M	L	G	T	E	N	F		
Ñ	Ñ	R	M	Z	K	Y	Z	M	J	H	S	I		
U	A	N	G	A	R	I	L	L	E	A	J	E		

The words highlighted are:

- Vertical (Leftmost column):** A R X A T X U R R E Ñ U
- Horizontal (Row 2, columns 4-9):** K O D A N E A
- Diagonal (Top-left to Bottom-right):** A Ñ D P I R S F Z D F S E T E B G H Y U B K I H X I X O J Y P A E E M E T O B U N Ñ D Z L I A U A R A J R O M B R S J H F Y K P D R N L X E T N S X A G E Ñ E K N T L K M L G T E N F Ñ Ñ R M Z K Y Z M J H S I U A N G A R I L L E A J E
- Vertical (Column 10):** A U A J E

Negua heldu jaku. Aurki
itzazu goiko letrazopan
neguagaz zerikusirik
daben 7 berba*. Kon-
tuan hartu Txorierrin esa-
ten dan eran idatzita dau-
zela.

* "Derioztarren euskara" liburutik jasoak.

*Ezkerraldean AIKOR! 54.
zenbakiaren erantzuna.
Soroan erabiltzen diren 7
tresnen izenak.*

**euskal herriko
d-generazioa**

aritz eta nagel
aizkor: oeko abenduaren 13a

zeurea 2007_a?

GORBEIA MERTZERIA



Gorbeia kalea, 7
48170 ZAMUDIO
94 455 93 08



Garmendia ardoak

Pirineo pol., P-7B
ZAMUDIO
Tel./Fax: 94 452 00 49

OBRAS Y REFORMAS

94 406 04 01 / 615 742 788

Gorrotxa

Berriztatze integralak
Gremioen koordinazioa

1. etanbidea / 1. sotoa, 2. behean
48170 ZAMUDIO
Tel. 94 406 04 01 - Fax 94 406 04 08
Móvil: 615 742 788

OTIKA IKUSLAN

Beharretako gradaintak
Kontakatu berriak
Egurakiko beharretak
Lodakengoz mehatat.

Oza kalea, 3. aldea. 94 452 28 18 ZAMUDIO

HORTZ KLINIKA



Idoia Zubietza

Uhasen-eraketa & Hortz-eraketa
BOKAL-ERAKETA - OSTEOPTILAZIOERAKETA
DENTURAS-ERAKETA



Dr. Aritzabaketa, 11. 1. eta. 48011 IRRIO • Teléfono: 94 441 63 73
Urdetxe plaza, 1 • 48170 ZAMUDIO • Teléfono: 94 452 13 70



GUEDAN

servicios deportivos, s.a.

ZAMUDIOKO UDAL KIROLODEGIA

Kiroli taldeak: 1. 1. etanbidea, 2. behean, 3. aldea. 48011 IRRIO
Telefono: 94 421 89 10 - Fax: 94 421 89 12
Zamudioko Kirolodegia: Telefono: 94 452 21 20 - Fax: 94 452 30 74



TALLERES JUAN ANDRES

AUTOMOBILAREN ELEKTRIZITATEA ETA MEKANIKA
PUNTUAN JARTZEA

Torreanagaoli Ind., B - 216. Pab.
Tel.: 94 452 87 89 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)

LEANDRO LANDETA



HARAGITEGIA-URDAITEGIA
Ote-Kalea, 1 • Tel. 94 452 00 69 • 48170 ZAMUDIO



LIBURUDENDA ERAPERDENDA

ZAMUDIO

Egunerako prentsa salgai

Gorbea kalea, 6
Teléfono / Fax: 94 452 29 10 • 48170 ZAMUDIO (Bizkaia)



Propietaria: T. Ibañeta
94 452 25 10 - 94 452 25 12
Telefonoa eta faxa: 94 452 25 12
Gorbea kalea: 94 452 25 12

MARMOLERÍA TXORIERRI MARMOLDEGIA

Sukalde eta bainugeletako harriak
fatxada, atariak eta hilerriak

Torreanagaoli Ind., P. 7B - nabe 2.
48170 ZAMUDIO (BIZKAIA)
Tel / Fax: 94 608 01 41 - 2



Merceria
Karmele

Torreanagaoli Ind., P. 7B - nabe 2. • 48170 ZAMUDIO • Tel.: 94 452 02 23



Bocateria

otarteko

Pizzeria

ETXEZ ETXEKO ZERBITZUA IA TXORIERRI OSOAN
ZAMUDIO TELF.: 94 44 52 11 42



GARAIOLTZA, S.A.

PROMOZIOAK-ERAIKUNTZAK

LEZAMA

ETXEBIZITZAK, MERKATARITZA-LOKALAK ETA GARAJEAK

LEHEN MAILAKO ERAIKUNTZAK; LEHIATE HANDIAK;

ORDAINTZEKO ERRAZTASUN HANDIAK

TF.: 94 455 50 19

Garaioltza auzoa, 128 (behea)
Lezama (Bizkaia)



PATXI COOP. E.L.
Concesionario Zamudio



Tel.: 94 452 25 87
94 452 37 34
Lizentziatutako enpresak
48170 ZAMUDIO - Bizkaia

OSO ALTU EGITEN DUGU HEGAZ

Gure helburua sektore aeronautikoan liderrak izatea da



Gidaritzaren, gure pertsonen inplikazioaren eta hobekuntza jarraikorraren bitartez, berrikuntza eta ingurumenarekiko errespetuarekin batera, Bikaintasuna etengabe bilatuz.



GRUPO

Industria de Turbo Propulsores, S.A.





Erreferentziako

txartela:

Finantza-txartelen

erraztasun

guztiekin eta

gainera...

Bidaia-

asistentziako

doako aseguru

abantailak era

guztietako 2.000

establezimendutan.

Deskontuak

mundu osoan

izateko giltza.

Kontsultatu

BBK26 gida,

www.bbk.es

orrian